

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

2021-06-04 OSTIRALA / 776. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Zikinkeria

Festa testuinguruan zergatik sortzen den eta alternatiba / 2-5



Lauko Finala
asteburuan
Altsasuko Zelandin
jokatuko du
CBASK Jatormanek / 17

Pandemia betean
egindako
Euskaraldiaren
balorazioak gazitik
eta gozotik izan du / 12-13

Estrategia
plana egitearekin
batera hausnartuko
dute arbazarrek
estalpeaz / 7

Geuretik Sortuak
proiektuaren barruan
Yolanda Arrietak
egonaldia egin du
Etxarri Aranatzek / 23



Jesus Arbizu Txurio berrerabilitako botilarekin edalontzia urez betetzen. UTZITAKOA

"Artea kontsumoa murriztean datza"

JESUS ARBIZU TXURIO 3 R KONPAINIAKO KIDEA

Murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hori sustatzen du 3 R Konpainiak. Jai giroan sortutako zikinkeraren inguruan ikuspegi partikularra baino orokorra aldarrikatu du

saltzen zen eta esneontziarekin joan behar zinen bila. Gero Kai-ku-Copelecheren botilak iritsi ziren. Denek erosi, edan, garbitu eta bueltatu egiten zituzten.

Eredu horretatik botatzera pasa gara. Apika, balio handigoa du botatzen dugun edukitzaile horrek, barruan zuen edukiak baino. Orokorrean ari naiz. Kristalezko botila bat oso elementu ona da, harekin ardura handigoa izan beharko genuke.

Zergatik iritsi gara honetara?

Arduradunen, ontziratzaileen praktika okerragatik.

Zer dio Hondakinen Legeak?

Gero eta zorrotzagoa bihurtu da, eta orain ekoizlearen erantzukizun zabaldua behartzen du. Hau da, ekoizlea da hondakinen arduraduna. Produktu bat saltzen badu, ekoizleak, edo banatzaileak hala badagokio, hondakin hori jasotzeko betebeharra du. Baina ez du halakorik egiten. Hau oso garrantzitsua da. Ez du balio esateak: puntu berde bat pagatuko dut. Ez. Ontzia merkatuan jartzen duenez, gaur egun, legez, ekoizleak ontzi hori jasotzera behartuta daude. Baita garbitzera ere. Bide bazterrean, kaleen eta abarren garbiketa ontzia zirkulazioan jartzen duenaren ardura da. Udalak ez du zertan garbitu eta hondakindegira eraman. Eta garbiketako gainkostu horrengatik ekoizleak udalari ordaindu beharko lioke. Hala dio legeak. Ergelen moduan udalek dena jasaten dute eta ez dute eztabaidatzen.

"APIKA, BALIO HANDIGOA DU BOTATZEN DUGUN EDUKITZAILE HORREK, EDUKIAK BAINO"

"LEGEZ, PRODUKTU BAT SALTZEN DUEN EKOIZLEAK HONDAKIN HORI JASO BEHARRA DU, EZ UDALEK"

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hiru jarduerak "r" hizkia-ekin hasten dira gaztelaniaz, eta hortik 3R Konpainia izena. Nafarroako Gobernuak herrialdeko hondakin guztiendako erraustegi erraldoi bat egiteko asmoa esku artean izan zuen 2010 aldera. Hainbat kolektibotan aritzen zen jendeak, bere kasa, plataforma sortzea erabaki zuen. **Ikuspegi orokorra zein da?**

Sekula ez dugu halako material xahutzerik izan. Urte batzuk baditut, gogoratzen dut haurra nintzela botila hutsak bueltatu egiten zirela. Hori egiterakoan haien balioa dirutan ematen zituzten. Orduan inori ez zitzaion bururatzen ardo botila bat erostea. Ontziratutako ardo botila erosteko oso-oso berezia izan behar zuen. Normalena ardandegira etxetik eramandako botilarekin edo garrafoiarekin joatea zen. Esnea ontziratu gabe



KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Proposatzen duzuen horren eredurik badago?

Europar hala egiten da. Halakoak saihesteko Alemanian gaia 90eko hamarkadan landu zuten, eta 2003an esan zuten: hau bukatu behar da. Gordailu, Itzulketak eta Itzulera Sistema (GIIS) ezarri zuten eskuineko gobernu batek.

Zer da GIIS?

Hasiera batean garagardo, ur, zuku eta edari beroendako muntatu zen sistema, ontzi gehienek edukia hori baita. Ontzi bat berrerrabilgarria edo erabilera bakarrekoa den desberdintzen du. Zu garagardogile bazara, garagardo botila saltzen duzu. Baina saltzen duzuna edukia da, garagardoa; edukizalea, botila, zurea da. Erosterakoan ontzi barrukoak interesatzen zaigu, ez ontzia eta barrukoa.

Arazo handiak izaten hasi ziren. Garagardo botila batzuk bueltatu behar zituzten. Nora? Printzipioz, erosi zituzten dendatara. Hori saltsa zenez, fabrikatzaile eta ekoizleak ados jarri eta ontzi berak erabiltzen hasi ziren, hala haien artean ontziak trukatu ahal izateko. Gaur egun Alemanian saltzen diren garagardo botila gehienak berdina dira. Han garagardo botila erosten baduzu, berehala ikusten da berrerrabilgarria den ala ez, urratu asko dituzte, beheko eta goiko aldeetan. Baina, distiratsua eta garbi daude. Aldatzen den bakarra etiketa da. Botilen berrerrabilpena errazteko, fabrikatzaileek ezarritako etiketei buruzko programa argia dute: ur itsasgarriak, etiketa motak... Ondorioz, toki batean erosten duzun botila, beste edonon edo beste hiri batean utzi dezakezu. Eta lurrean ez dago botatako ontzirik.

Horren ondorioz, Alemanian inon ez duzu lurrean ontzirik botata ikusiko. Gordailu bakotza 25 zentimo dira. Eta jendeak, normalean ikasleek, ikusten badute turistaren batek edandako garagardoaren botila utzi duela, hartu egiten dute, dirua delako. Horretaz bizi den jende ugari dago. Edariendako sistema horrekin batera beste sistema batzuk ere

badaude. Puntu berdeek han funtzionatu egiten dute.

GIIS sistema 40 bat herrialdean erabiltzen da: Finlandia, Lituania, AEB... Heldu den urtean Portugalen ezarriko dute. Frantzia ezartzea pentsatzen da. Eta Europako Batasuna GIIS ezartzea aztertzen ari da. Botilak berrerrabiltzeko modu bakarra da.

Dendek nola hartu zuten?

Pozik daude, lehenik, bezeroak fidelizatu dituztelako; normalean, erositako tokian bueltatzen delako ontzia, eta han bueltatzen dizutelako dirua. Alemanian denden %80-ak eskuz jasotzen dituzte ontziak. Urtean zehar saltzen duzun produktu kopuruaren arabera gehiago edo gutxiago automatizatuko duzu makinekin bilketa. Saltzen ari zaren kontzeptua "gordailua" da, zu ez zara ontziaren jabea. Sistema horretatik gehien gustatzen zaidana kaleen garbiketak da. Ez da udalak garbitzen duelako, jendeak ez duelako botatzen baizik. Eta ontziren bat ikusiz gero, jendeak jaso egiten duelako, hau kobratzeko.

Hemen ez da halakorik egiten?

Iruñean 1987an egin zen ontzien berrerrabilpenaren lehen esperientziatako batean

deflektoreak zituzten edukiontzia erosi ziren. Botilak bota eta ez ziren hausten. Botilak garbitzeko lantegia jarri zen Iruñean. Botila fabrikatzaileari ohitura hori ez zaio interesatzen. Iglu batean utzitako botila bat sekula ez da berrerrabili, hausteko baita. Zergatik? Fabrikatzaileak horrela botila bat gehiago ekoizti behar duelako.

Garai batean sagardoa xampain botiletan ontziratuta saltzen zen. Ekoizleek sagardogileak kontentzitu zituzten beste ezaugarri bateko botila atera eta hala bereizteko. Eta norbaitek zerbait saldu behar duen bakoitzean botila arraroak egiten ditu.

Anis botilek dirutza balio zuten eta denak berrerrabiltzen ziren. Gaur egun batzuk berrerrabiltzen dira Horeca (ostalaritza, jatetxeak eta catering) kanalari esker. "Alderantzizko logistika" delakoa besterik ez da behar, banatzaileak botila kutzak eramaten dituztenean, hutsik dauden botilez betetako kaxak eramatea. Ez du kosturik. Sistema hori erabili beharko litzateke, baina gutxi erabiltzen da. Eta botila ekoizleen interesengatik da. Lehengai oparitzen ari gara.

Eta legeren bat aurreikusitako?

Lege aurreproiektua orain lantzen ari dira. Sistema ezartzeko egurren ari gara, eta ez dago modu-

rik. Lobbyen presioa hain da handia, ez dutela uzten. Nafarroan sistemaren probaldia eginen da orain, argi ikusten delako hortik jo behar dela. GIIS erreklamatzera gonbidatzen dut.

Jai giroko testuinguruko hondakinekin zer egiten duzu?

Jai girokoa anekdota hutsa da, aurrekoa garrantzitsuagoa da. Jai giroarenak une jakinak dira. Egia da alkohola burura igotzen zaigunean asto xamarrek garea. Baina gauza bera familia bazkarietan... Ez da ez gazteria, ez jende larria kriminalizatu behar. Festetan zaude eta dena botatzen duzu. Argi dago.

Gizarte arazoak eragiten ditu, edanarekin pasatuz gero beste kontsiderazio batzuk egon daitezke: emakumezkoen errespetu falta, auto istripua eragin...

Garbiketak ikuspegitik... Unibertsitateko ikasleek Iruñeko Amaia kirol gunean urtero egiten dituzten festetan zenbait urtez lan egiten saiatu gara. Guztia kristo eginda uzten zuten. Klubak garbiketak zerbitzua pagatu eta kitto. Baina Media Luna parkea, ezponda guztiak zikin-zikinak gelditzen ziren. Horren aurrean udalak ez zekien erreakzionatzen. Baso berrerrabilgarriak ezartzeko bitartekari izan ginen. Ez dira konponbidea, GIIS baita konponbidea. Botila indibidualak saldu beharrean, kupeleko edariak lehenetsi daitezke eta gazteen artean harrera ona izan dezake.

Jendeak dendaren batean erosi eta gero lasai ederrean edatera joaten dela, egia da. 3 R Kanpainako kideak duela bi urte, suiziden pare, Sanferminetako etxajuetara joan ginen. Haiak bota ondoren, ontziak ematen zituztenei 10 zentimo ematen genizkien. Diru faltagatik 5 zentimo banatzen bukatu genuen. Jendeak esku artean duenak balio bat duela kontzientziazteko modu bat da. Jendea ongi portatu zen.

Gazteak kalean badaude da dirurik ez dutelako. Nahiago lukete gazteak lagunekin toki epelean bilduta egotea. Ahal duten tokian biltzen dira, estalpe batean, ez bustitzeko. Hor dagoelako kriminalizatzea? Kutzazainean lo egiten duena kriminalizatzea bezala da. Emaiozu ohe bat. Kutzazainean ez dago gustatzen zaiolako. Pentsatzen dut kexatzen direnak

dirua duen eta halako arazorik ez duen jendea dela.

Jai giroko zikinkeria kontzientzia arazo da, nik garrantzia gutxiago emanen nioke. GIIS, batez ere, edariekin funtzionatzen du. Botila bakoitzari kostu bat jarriz gero, ikusiko duzu nola inork, ez gazteek ez helduek ez dizuten lurra botilez beteta uzten. Edan eta hurrengo egunerako gordeko lukete.

Jendeak herria zikin ikusteagatik protesta egitea, ikuspegi orokor horretatik kontzientzia hartzeko oinarria izan daiteke?

Bai. Botilak kenduz gero, ondorengo garbiketak askoz ere errazagoa izatea. Errefusan botilarik ez badago, hondakinak kudeatzea errazagoa da. Zeren gaur egun edukiontzia horira ez doa ia ezer. Ontzi askoz ere gehiago daude errefusan, edukiontzia berdean, horian baino. Nahastutako hondakinen kudeaketa oso zaila da. Egoki bereizita, hondakinen berreskurapena errazagoa da, garbiago dagoelako.

Bestetik, kristal, plastiko, PET botilak eskura bueltatzeak kalitate handiko materiala dakar. Ondoren botila berrerrabilteza oso merkea da, berri bat fabrikatzea baino. Denda batean bueltatzen den plastikozko botila, plastikozko oso garbia da, eta errefusatik ateratako plastikoa-ren prezioaren bikoitzean edo hirukoitzean saldu izan da, errefusakoa zikinkeriarekin nahastuta, doblatuta eta zikin dagoelako. Hondakin bilketako kamioiak energia gutxiago gastatzeko hondakinak konprimatu egiten ditu bolumena txikitzeko. Bestela, airea eramaten lukete eta bidaia pila egin. Plastikozko botilak zapa-zapa eginda ateratzen dira, eta ezin dira ezta material gisa erabili.

"BERRERABILTZEN SISTEMA BAKARRA DA GORDAILU, ITZULKETA ETA ITZULERA"

"BOTILA BAKOITZARI KOSTU BAT JARRIZ GERO, IKUSIKO DUZU NOLA INORK EZ DUEN BOTATA UZTEN"





Aitor Baztarrika Irigoyen Nafarroako Unibertsitate Publikoko campusean. UTZITAKOA

"Gizarteak sozializazioa nola ikusten duen da gakoa"

AITOR BAZTARRIKA IRIGOYEN SOZIOLOGOA

Kale edanaren edo jai giroko testuinguruan sortzen den zikinkeriak sakandarren artean zeresana sortu du eta soziologo batek horren inguruan duen iritzia eman digu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Elkarrizketa hasi bezain laster jakinarazi digu Baztarrikak ez duela alkoholik edaten, abstemia dela.

Lagun artean edatea, zer da?

Sozializazio eremu tradizional batean egotea bezalakoa da.

Zer bilatzen da sozializazio eremu horretan?

Jendeak erantzun beharko luke zer nahi duen edatean. Eta gero lagun artean edanda egoteaz.

Edo lagun artean edan gabe egotea. Nik ez dut erantzunik, baikoitzak jakin beharko du.

Arautua dagoen eta arautu gabe dagoen testuinguruak daude. Tabernak, elkarteak eta abar alde batetik, eta horiek ez direnak.

Ez dakit zehazki zein profilek edaten duten kalean, Iruñean jende askok edaten du. Ziur ere banaiz Sakanan antzeko profilak egonen direla eta bakarrik gazteak izanen direla. Gazteen egoe-

ra zein den jakinda... gizartetik pixka bat "kanpo" edo heldutasunetik "kanpo" egotean, tabernetan lekua opatzea zailago dute. Batez ere, ekonomia alderdian ez dutelako hainbeste potentzia-rik. Horregatik, normala da edateko eta sozializatzeko beste lekuak bilatzea. Normala da? Normalizatu da. Pandemia garaian ohitura hartu da. Batez ere, tabernen edukieragatik. Gaztelaniz esaten den moduan:

el que se adelanta, canta. Horregatik, ekonomia ahalmenari lotuta, logikoa da gazteek kale edana egiten dutela pentsatzea. **Esan duzunez, ez dira bakarrik gazteak kalean edaten dutenak. Adin batetik gorakoek zergatik egiten dute?**

Batez ere, edukiera kontuagatik izan daiteke. Izan ere, taberna batean edukiera muga ezartzeak jendea kaleratzea ekartzen du. Nahi eta nahi ez. Eta jendeak ez dio edateari utzi behar taberna barruan ezin badu. Hau da, nahiago dute kalean edan eta isunak edo halako zerbait jasotzera arriskatu, ez edatea baino. Hori jendearen arazoa da. Baina, berez, arazoaren gakoa da gizarteak sozializazioa nola ikusten duen.

Eta gizarteak nola ikusten du sozializazioa?

Ez da askorik urruntzen alkohola edan eta terrazetan egoteaz. Sanferminetan, Altsasuko edo Etxarri Aranazko festetan edo edozeinetan normalena da, umeak izan ezik, beste guztiok garagardo edo kalimotxo bat eskutan izanda mozkor egotea. Sozializazioa eta denbora libre pasatzeko aitzakia ez dakit den, baina alkohola beti dago tartean.

Errutina bat da?

Nire ustez, bai.

Herrietan kale edana egiteko ez da edozein toki aukeratzeko.

Imajinatzen dut toki sinbolikoak izanen direla. Esate baterako, kuadrilla baten gustukoa izatea, esaterako, herriko plazaren bat

"TABERNA BARRUAN EZIN BADU ERE, JENDEAK EZ DIO EDATEARI UTZI BEHAR"

"SOZIALIZATZEKO ETA DENBORA LIBREA PASATZEKO ALKOHOLA BETI TARTEAN DAGO"

"ZIKINKERIAN KULTURA ETA DENBORAREN GESTIOAK ERE GARRANTZIA DUTE"

edo beste lekuren bat. Azken finean, leku sinbolikoak dira eta Sakanan herri oso ez handiak izateak dakar jende guztia, edo ia dena, leku berdintsuetan elkartzea. Logikoa da jende guztia plaza berdintsuetan biltzea.

Zergatik jotzen da toki sinbolikoetara?

Nire ustez, leku sinbolikoek badeute halako indarra, erakartze indar bat. Imajina ezazu: txiki-txikitik herriko plazan gelditu bazara, zergatik ez zara herriko plazan geldituko zure denbora libre pasatzeko 20 edo 30 urterekin? Azkenean, herriko plazan beti jolastu duzu. Eta zure denbora libre pasatzeko modua garatu egin da, eta herriko plazak ere hori ikusi du. Azkenean, zure hezkuntzaren parte bat leku sinboliko hori da.

Etteratze aginduarekin leku sinboliko horiek hustu egin dira eta herrietatik kanpo aterata da kale edana.

Bai. Atera izana errespetuagatik izan daiteke? Izan ere, bizilagunen bat kexatu egin da kale edanagatik eta esan dute: ez dugu inor molestatuko eta urrutiagoko beste leku batera joanen gara edatera.

Edo izan daiteke isunaren beldurragatik?

Jakina. Horrek beti du bere indarra. Isunek beldurra ezartzen dute. Ekonomia alderdiak gaur egungo gizarte oso-oso garrantzi handia du. Gainera, Sakanan langabezia handia dagoenez, isunen kontua oso garrantzitsua izan daiteke jendea beste leku batzuetara edatera joateko.

Pandemian poliziek desegindako kale edan berri jaso dugu astelehenero. Neurri egokia da?

Neurriaren egokitasunaz jendeari galdetu beharko litzaioke. Neurri egokia da jendea etxean mantentzea gauean? Logikoagoa litzateke egunean etxean mantentzea. Edo telelanerako baldintzak eskaintzea... Beste eremu batzuetan inbertitzea. Itxiera aginduarekin ez dakit zenbat jende ateratzen zen Sakanan gauez. Edo Nafarroan. Eragina izan du jendeak bere kontra egiteko. Lege bat ezarri eta jende askok legearen kontra joatearen inertzia du.

Jai giro testuinguru batean autoritate ez da oso estimatua izaten.

Hori da. Gainera, alkoholarekin dagoen jendearen arriskua edo balentria askotan areagotzen da, eta ausartagoak dira.

Jai giroan gaudela, zergatik bukatzen dugu zigarrorik, basoak, botilak, poltsak... lurrera botatzen? Kulturak bere pisua dauka. Kultura eta denboraren gestioak ere garrantzia handia dauka. Izan ere, jendeak edan nahi du, baina jendeak bere denbora berarendako kontu garrantzitsuak direnetan inbertitu nahi du. Hau da, inori ez zaio zakarra botatzea gustatzen. Azken finean, bizitza aprobetxatu behar dugu, eta ez dut momentu tontoetan denborarik xahutu behar. Adibide tontoa da, baina askotan jendeak ez pentsatzeko, egun guztietarako arropa berdina erosten du. Horrela janzten du beti. Ez du erabakirik hartu behar. Hemen, berdina. Jendeak badaki zertan inbertitu nahi duen bere denbora. Eta, azkenean, planetaren hobekuntza kontzientzia hartzea oso zaila da denboraren kudeaketa kontuan hartuz.

Toki sinboliko horiek behin eta berriz zikintzen direla ikusita, jende batzuk pentsatzen dute ez dela zibismo falta harrokeria baizik. Horrek subjektibotasun puntu bat ere badauka. Hori pertsona horiei galdetu beharko litzateke eta haiek esanen dute. Pertsona ororen ekintzek besteei eragiten die. Izan dezake ere influentzia zati bat.

Zikindutako espazio sinboliko horretan, ispilu horretan, gure burua ikusten dugu? Nik uste, gizartean orokorrean, autokritika egitea oso zaila dela. Edo ez dagoela batere zabaldua. Errazagoa delako besteei errua botatzea eta zure akatsak ez begiratzea. Eta berriz itzultzen gara denboraren kontura: akatsak zuzentzeko denbora behar da. Eta denbora oso garestia edo baliagarria da, eta ez dugu denborarik galdu nahi. Gure hezkuntza zibikoa gartzeko denbora behar da. Nire ustez, denborarekin eta denbo-

raren kudeaketarekin harremana dauka.

Oraindik ere errudunak bilatzeko premia sentitzen dugu?

Badago kazetaritza mota bat beti-beti-beti errudunak bilatzen ditu, eta ez ditu konponbideak edo horrelakoak aurkitzeko ahalginak egiten dituen. Badago kazetaritza mota bat, kazetaritza eraikitzailea eta konponbideen kazetaritza, konponbideetan zentratzen dena, eta konponbideen bidez arazoei heltzen diena; soluzioen bitartez arazoak konpontzeko bidea opatzen duena. Edo horretarako ahalegina egiten du. Errudunak bilatzea? Puntu bateraino ongi dago. Baina hurrengorako ikasteko eta errudun horiek ikas dezaten. Baina ezin gara errudunetan geratu. Hezkuntzak eta hedabideek pisu handia dute heziketa horretan ere.

Kazetaritza esan duzuna geure buruei aplikatzeko modua da, ezta?

Kazetaritza, hezkuntza, pertsona bakoitzari aplikatzeko zerbait da, bai. Azken finean, errudunak bilatzea oso erakargarria da. Baina ez da eraikitzailea.

Konponbide eraikitzaileko zein oinarri egon beharko lirateke? Festa testu inguru batean dagoen pertsona batek zer egin beharko luke ez zikintzeko edo, behintzat sortzen duen zikinkeriaz kontzientziate izateko?

Ez dut soluzio magikorik. Nire ustez egin beharko litzatekeena da herritarren arteko kontzientzia garatu, planeta zaindu behar dugunaren kontzientzia ere garatu. Horretarako, ahalegina denok egin behar dugu. Jai girotik kanpo. Jai giroan ikastea, mozkor zaudenean, nahiko zaila da. Hori eskoletan, aisialdi taldeetan... Hezkuntza txiki-txikitatik sartu behar da. Baina helduei ere buruan sartu behar zaie. Nola egin? Batek daki. Probatzea da.

"Alternatibak eskaintzeko politikak behar dira"

JOSUNE, LUCI ETA ENKA GIZARTE ZERBITZUETAKO PREBENTZIO TEKNIKARIAK Sustantzien kontsumoen ondorioez gaztigitzen urteak daramatzate. Kale edanaren inguruko iritzi eske jo dugu haiengana

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Kale edana 90eko hamarkada akaberan sortu zen Espainia hegoaldeko hiri handietan.

Zergatik egiten da kale edana?

Batetik, adinez txikikoei edari alkoholikoak ez zerbitzatzeko legea dago. Bestetik, prezio merkeago baten bila doa diru askorik ez duena. Gainera, erlazioak izateko espazio propio bat sortzen da. Musika entzutea eta lagunekin egotea da bilatzen dena. Gehienbat nerabeak egiten dute, adin horretan "haustea" oso erakargarria den gauza da.

Kalean edanean aritzen denak, beste espazio alternatiborik badu?

Osasuntsuak diren alternatibak eskaini behar dira. Halako politika publikoen aldeko apustua egin beharko da, aukera bakarra kontsumitzea izan ez dadin. Gaur egun dauden alternatibak indibidualak dira.

Kontsumoa berdina da tabernan eta kalean? Eta ondorioak?

Ez dauka zer ikusirik jendearen aurrean egiten diren gauzak ala ezkutuan egiten direnak. Bestalde, tabernetan lasaigo edan ohi da, tabernatik tabernara joateak bere denbora eskatzen du eta kale edanak, berriz, leku batean eserita eta denbora laburrean kantitate handiak edatea suposatzen du. Bestalde, helduen begirada ez dagoen lekuetan arrisku jokabide gehiago izan daitezke (koma etilikoak, erorketak...)

Jai giroan gaudela, zergatik bukatzen dugu zigarrorik, basoak, botilak, poltsak... lurrera botatzen?

Kontsumoen ondorioetako bat, normalean barneratuta ditugun jokabideak erlaxatzea izan ohi da, ondo edo gaizki dagoenaren kontzientzia galtzen da. Adibide nabarmenena edan ondoren autoa hartzeko gai sentitzearen pertzepzioa da, eta, hau bezala, gainontzeko jokabideetan berdin. Azken finean, egoera normal batean egingo ez genituen gauzak egiten bukatzen dugu.



Eneka Irizar, Josune Zabala eta Luci Gonzalez de Pedroso. ARTXIBOA

"KONTSUMOEN ONDORIOETAKO BAT, BARNERATUTA DITUGUN JOKABIDEAK ERLAXATZEA DA"

Genero aldagaririk badago?

Badirudi gaur egun neskak zerbait gehiago edaten ari direla, kale edanaren bidez beraien genero identitatea birdefinitzen daudela ematen du eta. Adinean lehenago hasten dira neskak, orokorrean neskak mutil helduagoekin egoteko joera dago eta horrek beraien kontsumoak berdintzera dakar. Metabolismoa kontutan hartuta, neskak mutlak baino zaurgarriagoak dira alkoholaren efektu toxikolari dagokienez.

Praktika egokirik badago?

Arrisku praktika bat dela kontuan izanik eta taldean egiten den kontsumo bat dela jakinda, alkoholak pertsona guztietan ez duela berdinean eragiten gogoratu behar dugu. Horregatik, kontsumoa neurtzen joatea beharrekoko gauza da. Ahal dela, gehiegi ez kontsumitzea. Bestetik, edari

nahasketarik ez egitea. Lasaitasunez edatea ere garrantzitsua da. Gomendagarria da alkoholik gabeko edariak tartekatzea. Eta ezinbestekoa da norbait gaizki ikusiz gero laguntzea.

Prebentzioaren ikuspegitik, zer azpimarratuko zenukete?

Gazteak kontsumo arduratsu batean hezi beharra dago. Eta hau esfortzu handirik egin gabe egin daiteke, helduen beraien jokabidearekin egin dezakete. Gainera, ezinbestekoa da alkoholak dituen ondorio negatiboak buruz kontzientzia hartzea, besteak beste adinez txikikoak kontsumitzen dutenean. Adinez txikikoei alkohola saltzearen kontrola izan behar da, azken finean legea betetzea baita. Horrekin guztiarekin batera, garrantzitsua da kale edanari alternatibak proposatzea, gazteen sozializazio moduak besteak izateko. Eta, azkenik, edariekin lotutako bi neurri hartu beharko lirateke. Alde batetik, alkohol edarien publizitatea murriztu beharko litzateke eta, horrela, alkohola eta ongi pasatzearen lotura hautsi eta, bestalde, alkoholik gabeko edarien prezioa jaitsi beharko litzateke.





ASTEKOA

JOSUNE GORRITI FERNANDEZ

Infoxikazioa eta boterea

Infoxikazioa edo gaininformarioaren fenomenoak berak harrapatu ninduen behin. Bat-batean informazio gehiegi jaso eta garunak eztanda egin zidan. Laster, nire arreta gutxitzen nabaritu nuen eta, gainera ez nintzen erabakiak hartzeko gai izan informazio bombardaketa jaso ondoren. Azaldutakoa oso ohikoa omen da gaitz hau bizi dugun XXI. mendeko lehen bi hamarkada hauetan.

Tartean sarean fake newsak edo gezurrak ditugu, azken boladan, pandemiaren inguruko esamesekin biderkatu den fenomeno. Aurretik, 1976. urtean, Alvin Toffler soziologo eta futurista estatubatuarrek deritzon Future Shock liburuan iragarri eta ikertu egin zuen Infoxikazioa, gaininformazioa edota infobesitatea.

Informazioa eta ezagutza boterea zirela zioten Hobbes eta Baconek XVI-XVII. mendeko buruek. Baina XXI. mendean baieztapen hau ez da aski. Michel Foucault historialariak eta marxismo ondorengo filosofoak (1926-1984) boterea, ezagutza eta egia inguruan ikertu zuen. Hain zuzen, boterea ideia "zuzenak" eta "okerrak" definitzeko gaitasunaren inguruan gauzatzen dela zioen, siniste sistema bat hegemonikotzat edo zentralizat jotzen den heinean, "egiaren" lekua hartuz. Ondorioz, sistema horrek errealitatea ulertzeko modua definitzen du eta gure bizimodua normalizatzen du.

Beraz, kalitatezko informazioa bereizten jakitea, Interneten zein teknologiaren zarata alde batera utziz, eta honen guztiaren gainetik, arreta lantzea dira gure garaiko oinarritzko abileziak, ezinbestekoak gainera, XXI. mendean ahalduzko edota burujabea izateko.

Gero eta zailagoa zaigu sakon aritzea, sare sozialen, Whatsapparen eta gainontzeko teknologiaren bitartez jasotzen ditugun milaka estimuluak direla eta. Hortaz, esaten digutena egia edo gezurra borobila den berehala erabakitzea behartzen gaituzte. Nahaste-borraste honetan, badira tresna batzuk egoerari aurre egiteko eta Informazioa kudeatzeko ohitura onak:

1. RSS irakurtzeko lanabesak edo harpidetza sistema erabili, adibidez, Feedly. Aski da 2-3 iturri fidagarri zehaztea gai bakoitzeko.
2. Twitterren zure intereseko gaien zerrendak sortu, gero egiazko iturriak erraz jarraitzeko.
3. Informazioa aukeratzeko, ingelesez *content curation* deritzona, Paper.li edo Scoop. It lanabesak erabiltzea.
4. Egunean informazioa jasotzeko tartea mugatzea.

Erne gero, boterea, ezagutza eta egia eraikitzen ari baitira sare sozialen algoritmoak eta atzetik diren interesak, post egia edo egia ostea eratuz eta zabalduz. Gure Facebook, Twitter, Instagram, Tik-Tok edota gainontzeko algoritmoek datu objektiboan gainetik, iritziak eta emozioak nagusitu eta, are gehiago, ikusi, irakurri eta entzun nahi duguna erakusten digute bereziki; beraz, informazio ezara eraman ahal gaituzte.

HARA ZER DIEN

Ileak, estriak eta mitxelinak ditugu, eta zer??

ERRAFAILAK SAKANAN

Badator uda eta udarekin batera existitzen ez den edertasun kanon batera iristeko betiereko oztopo lasterketa. Inork irabazten ez duen oztopo lasterketa. Lasterketa irteeran: segurtasunik eza eta autoestimua falta, norberaren zaintza eta arreta ez ezean oinarritua. Denak ahal dugun moduan aterako gara korrika, eta gorputzen arteko lehiaketa hasiko da. Gainditu beharreko oztopoak honako hauek dira, batik bat:

ileak ezkutatu dituen depilazio basatia, arrautza frijitu baten antzera beltzarantzeko eguzkia hartzea, ezer gutxirako balio duen dieta bat egiteko gosea eta egarria pasatzea edota gure gorputzeko zati lotsagarriak estaltzeko arropa erostea. Hiru, bi bat, PUM! Hasi da lasterketa. Helmugan? Frustrazioa, lotsa, antsietatearen areagotzea, etsipena... eta saria???

Jendartearen begirada neska* gazteon gorputzen gainean dago beti eta udan biolentzia hori indartu egiten da eta ikusgarriagoa bilakatzen da. Sistema kapitalista heteropatriarkalak gure gorputzak eraso eta merkantilizatzen ditu, gorputz perfektuaren bila aritu behar izaten gara. Kanon estetiko guztiak bete behar ditu-

gu onartuak eta desiragarriak izateko. Erosi eta kontsumitu, ondoren gure gorputzak saltzera bultzatuz. Existitzen ez den edertasun kanona lortzeko oztopo lasterketan, neska* gazteok zaurgarri gara eta honek osasun arazo fisikoak zein psikologikoak ekartzen dizkigu gutako askori.

Edertasunaren, irudiaren eta desiragarritasunaren eraikuntza sozialak deseraiki behar ditugu, gure gorputzekiko autodefentsa mental, emozional eta fisikoari ekinez, borrokatuz. Badator uda eta gu titiak, estriak, mitxelinak, ileak, azalak, ipurdiak eta deserosoa den hori guztia erakustera goaz. Neska* gazteok autodefentsa feministaz sistema desnormalizatzen goaz!

GUTUNA

Udalari euskaldunok bost!

MAIALEN PELAEZ ETA HAIZEA RAMIREZ DE ALDA

ALTSASUKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ EHE eraberrituak bere oinarriak kaleratu zituen duela hilabete batzuk, *Ikusmira* izeneko dokumentuan. Oinarri eta helburu horiek bat eginez, Altsasuko EHEk, Altsasu berreuskalduntzea helburu, berriro ere ekin dio herritarrek aktibatu eta euskaldunon hizkuntza eskubideak defendatzeko lanari.

Herritarroandik gertuen dagoen administrazioa udala dela esan dezakegu. Batzuo, ordea, beste batzuei baino urrunago geratzen zaigu administrazio hori. Izan ere, Udalean euskaldunak 2.mailako herritar sentitzen gara:

Udalak gaztelania hutsezko SMS eta posta elektronikoak bidaltzen ditu; udaletxe

sarreran osasun jarraibideak jasotzen dituen informazio panel bat aurki dezakegu eta bertan gaztelaniari ematen zaio lehentasuna; udalaren webgunean sartuta, hainbat atal gaztelania hutsez daude; Altsasuko liburutegian 16 urte artekoendako liburuetatik, euskarazkoak ez dira %30era iristen, ordenantzaren arabera gutxienez %50a izan beharko luketen arren; kultur agendari dagokionez, euskarazko eskaintza nahikoa izatetik urrun geratzen da; hori gutxi balitz, pasa den legegintzaldian udalak obra eta garbitasun langileei euskara-eskakizuna kendu zien eta merezimendu bihurtu zuen.

Adibide batzuk baino ez dira eta ziur altsasuar euskaldunei gehiago bururatuko zaizkiela. Eskubide urraketa horiek guztiak gure herrian euskaraz bizi ahal izatea ezinezko egiten dute.

Bestalde, legegintzaldi honetan ez da udaleko Euskara Batzordea

behin ere deitu. Batzordea deitzeko ardurak lehendakariak du, kasu honetan, alkateak. Badirudi euskara beste gai guztien azpitik dagoela, orain arte deitu ez den batzorde bakarra baita. Antza, ez dago gai honekin egin beharreko ezer.

Hizkuntza politika egiten denak eta egiten ez denak osatzen dute. Bai batean bai bestean, Altsasuko Udalaren hizkuntza politika zein den argi ikusten da.

Herritarrok ezin ditugu eskubide urraketa normalizatu. 2.mailako altsasuarrik egon ez dadin, gure hizkuntza eskubideak errespetatzeko exijitzen diogu udalari; euskararen ordenantza betetzen dela bermatu eta euskara bere jardunaren erdigunean jartzeko. Era berean, herritarrei dei egiten diegu heldu den ostiralean, ekainaren 11n, 19:00etan udaletxe aurrean egingo dugun kontzentrazioan agertzeko. Euskara erdigunerak!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Arbazuarrei larunbatean aurkeztu zitzaizen estalpe proposamena. ARRUAZUKO UDALA

Estalpea eta estrategia plana lotuta

Arkitektoek beraien proposamena arbazuarrei aurkeztu zieten. Hura eraikiko den edo ez Arruazuko plan estrategikoaren baitan erabakiko dute. Parte hartze prozesua udazkenean egitea aurreikusi du udalak

ARRUAZU

Bi batzarretan entzundako ideiak estalpe proiektu batean gauzatu ditu Arantxa Satrustegi arkitektoak eta larunbatean aurkeztu zien arbazuarrei eta "konzeptua gustatu" egin zitzaizen. Proposamenaren arabera estalpea herriko itxaren eta elizaren artean egonen litzateke, frontoia libratuz, eta haren paralelo dagoen berdegunearen zati bat hartuz. 200 metro karratu pasa izanen litzuzke.

Zirriborroan bi isurkitako estalkia aurreikusten da, herrien etxeetakoa bezala. Txapazkoa litzateke, eta egurrez estalitakoa. Gainera, argia pasatzen uzteko tartek aurreikusi dira. Teilatuak elizaren ondoan izanen luke altuerarik handiena, bost metro pasa, eta herriko itxara hurbiltzen den heinean teilatua jaisten da. Hari metalezko hamar zutabek eutsiko liokete.

Estalpearen proposamena-ekin batera, arbazuarrek aurreko batzarretan udaletxe

ingurua ordenatzeko aukera mahai gaineratu zuten. Satrustegik kontsultategiaren parean berdegune txiki bat aurreikusi du, zuhaitz eta guzti izanen duena, eta herriko itxen fatxadaren pareko guztia libre uztea.

Etorkizunaz

Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, "arkitektoari estalpe proiektuaren proposamena egiteko eskatu diogu. Baina estalpeari buruzko azken hitza arbazuarrek izanen dute Arbazuko plan estrategikoa egiteko parte hartze prozesuaren barruan". Ovejerok gaineratu duenez, "udalaren gaitasuna mugatua denez, epe ertainerako estra-

**ABAILA
KOOPERATIBAKO
KIDEAK ZUNTZ
OPTIKOA SARTZEKO
LANEAN ARI DIRA**

tegia plana eginen dugu, 15-25 urterako-edo".

Arruazuko Udalak aurki enpresa bat kontratatuko du herriko estrategia plana egiteko prozesua bideratzeko. Horretarako, 16.000 euro (BEZ barne) aurreikusi ditu. Behin kontratazioa eginda, "estrategia planaren talde motorra lanean berehala hasiko litzateke eta eztabaida taldeak eta parte hartze prozesua iraila eta abendu artean eginen litzateke". Etorkizunerako plangintza hori egin ahal izateko, Arruazuko Udalak Nafarroako Gobernuaren herritarren parte hartzea sustatzeko dirulaguntza deialdian eskaera egin zuen, baina ez du jaso.

Bestalde, Abaila kooperatibako kideak Arruazun lanean daude eta hilaren erdialderako euren lana despedituko dutela jakinarazi du Ovejerok. Haien egitekoa da zuntz optikoa herrira eramatea eta gero etxeetaraino sartzea, Eraikinetan sartu ahala zerbitzua jasotzen ari dira arbazuarrek.

Urdalurko sarea zabaltzeari gobernua bultzada

Uharkatik abiatzen den ur hornidura sarea gaur egun Satrustegiraino iristen da eta Etxarrenera luzatzeko lanak eginen dira aurtun. Foru administrazioak lanak ukitutako ondasunak eta eskubideak okupatzea premiazkoa izendatu du. Sakanako Mankomunitateak Satrustegi eta Etxarren arteko zatia egiteko 509.215,85 euro inbertituko ditu.

Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioan 56 sakan-darrak

Herenegun hasi eta gaur despedituko da Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazioa. Hura egiten ari diren 3.869 ikasleetatik 56 sakan-darrak dira. Altsasu institutuan ikasketak egin dituztenak 47 dira, D ereduko 46 eta A ereduko 1. Gainera, Iruñeko Biurdana institutuan ikasten ari diren Arakilgo eta Irurtzungo zortzi ikasle ere aurkeztu dira azterketara.

Iñaki Alforja Sagone-ren dokumentala

BIZIPREST

Gehiago gara.

Altsasu | Ekainak 9

18:30 | Gure Etxea



Edukiera mugatua

Jaso gonbidapena:

Altsasuko Iortia Kulturguneko txarteldegian edo Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan Maiatzaren 28ko 12:00ak baino lehen





Igandeko omenaldirako 'Nekez uzten du herria herria egin duenak' izenburua aukeratu dute. ARTXIBOA

"Gustura geldituko litzatekeela uste dugu"

URKO AIERBE OMENALDIKO LANTALDEKO KIDEA

Igandean, 12:30ean, Olatzeako belardian Fran Balda Araña omentzeko ekitaldia egingen da. Streaming bidez ikusteko aukera izanen da: labur.eus/Baldagogoan

Eneida C. M. / Alfredo A. I. ARBIZU
Hasieratik erabaki zuten aire librean egitea, jende gehiago egoteko. Osasun agintariak hala aginduta, 500 pertsonarendako tokia izanen da. Osasun neurriak errespetatuko dira: ikusleei eremuan sartzeko tenperatura hartuko diete, eskuetan gela eman beharko dute, eremuan pertsonen arteko distantzia mantenduko da... "Franek berak horri izugarritzko garrantzia eman dio hilabete hauetan. Elkar zaindu behar dugu, herria zaindu behar da. Beti horrekin kezkatuta ze-

goen, bilerak egiterakoan, itxialdia ezarri zenean..."

Antolatzaileak ziur dira jende asko sartu ezinik geldituko dela. Beraz, omenaldira joan nahi duten arbizuarrei eta sakandarrei garaiz ibiltzeko eskatu diete, uste baitute eremua azkar beteko dela. Aldez aurreko gonbidapenik ez dago. Streaming bidez omenaldian zuzeneko emanaldia egingen da labur.eus/Baldagogoan helbidearen bidez.

Lehen aldian hitz egitea arraro egingen zaizue. Zein zen Fran Balda Araña?

Fran oso ezaguna zen Sakanan, Nafarroan, Euskal Herri osoan hainbat arrazoiengatik. Bat-bateko heriotza izan da, inork espero ez zuen istripua izanda, denak shock-ean jarri gintuen. Baina hasiera-hasieratik ikusi zen Franek merezi zuela omenaldi bat egitea. Aurpegi anitzeko omenaldi bat, Franen izaerari lotuta. Irakurle askok ezagutuko zuten, eta bakoitzak berea izanen du: militantea, parrandazalea, herrigintzan buru belarri zebilena, adiskidea... Omenaldian hori guztia islatzen saiatuko gara.

Fran arbizuar moduan eta Arbizuri eskaini zion guztia. Eta ez bakarrik Arbizuri, baita Sakana-ri, Nafarroari. Gero ere Fran militantea. Urte luzetan, batez ere, presoen askatasunaren alde buru belarri ibilitakoa. Baita Euskal Herri aske eta hobe baten alde ibilitakoa ere.

Zalantzarik ez zen izan, zerbait egin behar zen.

Bai. Lehenengo erreakzioa izan zen: Franek dituen aurpegi desberdin horiekin, Euskal Herrian oso ezaguna izanda, omenaldi txukun bat behar du; dimentsioan, antolaketan... Horrek Arbizutik haragoko proiektzioa zuela ikusten genuen. Horren segidan etorri zen: Arbizu mailako omenaldi bat behar dugu, herritarrek modu xumean parte hartu ahal izateko, norberak bere barrenak husteko. Albistea ezagutu eta bi egunetara Arbizuko omenaldi intimoa, herrikoia egin zitzaion. Inprobisatua izan bazen ere, oso oso polita izan zen. Plazan egin genion. Franek bazeukan hori ere: oso herrikoia, oso xumea, zinegotzi izandakoa eta Arbizuko herrigintzan buru belarri ibilitakoa. Orain oso ilusionatuta zegoen. Bazeuzkan buruan hainbat proiektu, hainbat kontu. Gainera, hainbat sektoretakoak: energia... Arbizu hobetzeko beti kezka horrekin zebilen, beti ideia berriak sortzen.

Beti besteenganako hori lehentasun. Bere ingurunean hobetzen ahalginduta, bere burua etengabeko kezka... Izan genuen azken elkarrizketetako bat horren bueltan izan zen. Esaten zidan eskertzen ziola pila bat feminismoari; azken urteetako feminismo honen ezaugarriei. Berak bere burua beste ikuspegi batek aztertzeko, pribilegiadun ikuspegitik, bera gizonezkoa

izanda, horrela hezi zutela. Konturatzen zela bere buruaren azterketa egin beharra zeukala, errebisio horretan gauza asko moldatu. Eta, alde horretatik, feminismoari eskertuta zegoen. Eta abiapuntu horretatik bere ingurunea hobetzen saiatzen zen. Esan bezala, Arbizu herria hobetzen, Sakana ere eta, azken finean, mundua hobetzeko ekarpen xumea egiteko kezka hori zuen beti.

Eta hori guztia nola bihurtzen da omenaldi?

Ez da erraza izan. Bagenekien, baina egiaztatu genuen jende askok estimu handia ziola. Omenaldia egitea erabaki zenean etorri ziren herrian dauden talde eta elkarteetatik, eta Sakana-ko batzuek ere parte hartu nahi zutela. Frani aitortza egin eta egindako ekarpenegatik esker ona azaltzea. Eskaera asko etorri ziren. Lantalde bat egon da hori ordenatu nahian. Omenaldian saiatuko gara, nolabait, bere bizitzaren haria jarraitzen. Franen alde desberdinak islatzen saiatzen. Eta parte hartzeko nahia adierazi zuten guztiei aukera emanez. Uste dut emaitza polita izanen dela. Fran omenaldiarekin gustura geldituko litzatekeela uste dugu. Esperantza hori dugu behintzat.

Kanpotik joaten direnendako oharrik?

Herri txikia denez, aparkaleku zabalik ez duenez, aparkatzeko eremu batzuk prestatu dira. Altsasu aldetik autobiatik heldu direnak Etxarri Aranatzan ateratzea (20. irteera) aholkatzen dugu, eta errepide zaharra hartzea. Irurtzun aldetik heldu direnak Lakuntzan (15. irteera) atera eta etor daitezela. Bidegurutzeetan jendea egonen da autoak aparkalekuetara bideratzeko.

EGUN ON SAKANA



GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK

10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA

10:15 BATETI BESTIA

10:20 EGUNEKO ALBISTEAK

10:45 HIZKETAN

11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN

11:55 AGURRA

beleixe

107.3 FM
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS



Maiatzeko lan uzteak bertan behera utzi zituzten biltzeko deitu zituztelako. @LAB_SAKANA

La Vasco Navarra enpreseko langileen protestaldia

Larunbatean, 12:00etan, Olatzagutiko manifestazioan lan hitzarmenaren negoziazioan dagoen blokeoa salatuko da

OLATZAGUTIA

Lan hitzarmen duina lortzeko negoziazioa zuzendaritzak "blokeatuta" duela iritzita, La Vasco Navarra enpresako langileen gehiengoak ordezkatzen duten LABek (2 delegatu) eta CCOOk (delegatu bat) manifestazioa deitu dute larunbaterako. Hitzarmen duin baten alde leloa izanen du martxak. Bi sindikatuak aurreratu dutenez, mobilizazioek heldu den astean segida izanen dute: osteguneko arratsaldeko txandan bi orduko lanuztea egingen dute eta heldu den ostiralean, berriz, goizeko eta gaueko txandan izanen dira geldialdia. Hilabeteko astelehen eta ostegunetan langileek lan uzteak egingen dituztela iragarri dute.

LABek eta CCOOk jakinarazi dutenez, enpresako "langile gehienek 1.000 euro inguruko soldata garbia dute eta 1.770 ordu lan egiten dituzte urtean. Bestetik, hitzarmenaren gaintik kobratzen ari diren pertsonak beraien osagarriak absorbitzen direla ikusten dute, inongo hobekuntza izanen duten espektatibarik gabe". Pandemia garaian lan erritmoak handitu direla eta Aldi Baterako Lanerako Enpresen bidez egindako kontratazioak igo direla nabarmendu dute jakinarazi dute. Azken bi datu horiekin ondorioztatzen dute "enpresaren egoerak hobera" egin duela. Mobilizazioetara deitu duten bi sindikatuetatik azaldu dutenez, "Enpresa errentagarria da, azken hamar urteetan irabaziekin bukatu du. 2019an 950.000 eurokoak

izan ziren eta 2018an bazkideen artean 140.000 euroko irabaziak banatu zituen".

Zuzendaritzaren jokabideaz, LABeko eta CCOOk kideek adierazi dutenez, haren "azken proposamenean %1,75eko igoera proposatu zuen, soilik nominan estatuko hitzarmenari eragiten ziena. Beraz, estatuko hitzarmenean agertzen ez diren kontzeptuei ez die eragiten. Are gehiago, kontzeptu horiek xurgatzeko aukera aurreikusten zuen proposamenak. Aurkeztu zituzten beste hobekuntza batzuk, absentismoa edo produktibitatea bezalako kontzeptuei lotuta zeuden". Azaldu dutenez, "langileen eskaeren aurrean, zuzendaritzak, enpresa hitzarmenetik erortzea erabaki du eta estatuko lan hitzarmen aplikatzen hasi da, horrek dakarren lan eskubideen kalte guztiarekin". Haien iritziz, "enpresak langileak erastzea erabaki du bere jarrera mantendu asmoz, lan baldintzak kaskartzen jarraitu nahi du, negozioa ahalik eta gehien esplotatzeko asmoz eta akziodunek euren irabaziak banatzen jarrai dezaten". Langileen gehiengoak babestu ondoren, enpresa batzordeak (LABek 2, eta bana CCOOk, ELAK eta UG Tk) negoziazio mahaira langileen eskaerak eraman zituen, baina "enpresak erabaki du gure aldarrikapenik ez onartzea" gaxtigatu dute LABek eta CCOOk. Langileei eta sakandarrei manifestatzeko dei egin diete. ELAri eta UG Tri eskatu diete dinamikara batzeko.

COVID-19 kutsatzeak %54,92 jaitsi dira maiatzean

Guztira 256. 2020an 1.170 sakandar gaizkitu ziren, aurtun, dagoeneko, 1.255. Sakandarren %11,97 da

SAKANA

Maiatza 256 COVID-19 positibo gehiagorekin joan zen eta pandemia hasi zenetik 2.425 sakandar dira gaitza pasa dutenak.

Udalerrietako biztanleria eta gaixo kopuruak gurutzatuta, Urdiain da COVID-19 gaixo gehien izan duen herria: %23,3. Positibo kopurua maiatzean hiru puntu hazi ondoren Etxarri Aranatz da zerrendan bigarrena (%17,06). Lakuntzan gaixoen kopurua hilabete batean 3,45 puntu igo da (%14,27). Arbizun, berriz, igoera 1,6 puntukoa izan da (%15,6). Iturmendin (%13,14) eta Irurtzu-



Erizaina txertoa jartzen. ARTXIBOA

nen (%11,62) ez da aldaketa handirik izan.

Igoera txikia izan ondoren, gaitza populazioaren %10k baino gehiagok izatera pasa da Altsasu (%10,54). Maiatzean 2,96 eta 2,43 puntutako igoera izan ondoren talde horretan sartu dira Irañeta (%10,65) eta Ergoiena (%10). Ehuneko hamarreko langa pasatzearekin Ziordia (%9,71, apenas aldaketarik ez) 3,17 puntu igo den Uhartea Arakil (%9,51) eta 3,05 puntu igo den Bakaiku (%9,44). Populazioaren %7 gaxorik izan duten lau udalerririk daude: Arruazu (%8,49) eta Arakil (%7,38). Azkenik, COVID-19 kasu gutxien zenbatu diren udalerririk Olatzagutia (%7,38) da.

Bestalde, Osasunbideak 1.057 sakandarri COVID-19aren kontrako txertoa jarri die aste honetan. 67 eta 69 urtekoei bigarrena eta 50-54 urtekoei lehenengoa.

Sakanako COVID-19 kasuak 2021ko hilabetea

Udalerrria	Herria	2021-01	2021-02	2021-03	2021-04	2021-05	2020an	2021ean	Guztira
Irurtzun		17	9	4	43	5	183	78	261
Arakil		3	14	3	8	1	42	29	71
	Aizkorbe	0	0	0	0	0	0	0	0
	Urritzola	0	0	0	0	0	0	0	0
	Errotz	0	0	1	0	0	0	1	1
	Izurdiaga	1	2	0	0	0	4	3	7
	Etxeberri	0	0	0	0	0	6	0	6
	Egiarreta	0	0	0	0	0	6	0	6
	Etxarren	1	2	1	5	0	5	9	14
	Ekai	0	0	1	0	0	2	1	3
	Zuhatsu	0	4	0	0	0	2	4	6
	Satrustegi	0	1	0	0	0	1	1	2
	Hiriberri A.	1	0	0	1	0	7	2	9
	Ihabar	0	5	0	2	1	9	8	17
Irañeta		0	0	0	4	5	9	9	18
Uhartea A.		1	2	0	14	25	33	42	75
Arruazu		0	1	2	0	1	5	4	9
Lakuntza		5	3	19	64	44	47	135	182
Arbizu		5	9	11	63	18	67	106	173
Ergoiena		0	1	4	12	9	11	26	37
	Unanu	0	0	0	5	0	1	5	6
	Dorrao	0	0	4	1	5	3	10	13
	Lizarraga	0	1	0	6	4	7	11	18
Etxarri A.		19	14	23	138	74	158	268	426
	Etxarri A.	19	14	23	137	73	155	266	421
	Lizarragabengoa	0	0	0	1	1	3	2	5
Bakaiku		0	4	4	9	11	6	28	34
Iturmendi		20	0	5	11	1	17	37	54
Urdiain		5	17	34	30	2	66	88	154
Altsasu		29	50	53	153	50	452	335	787
Olatzi		6	14	7	18	8	57	53	110
Ziordia		3	10	1	1	2	17	17	34
Guztira:		113	148	170	568	256	1.170	1.255	2.425

ITURRIA: OSASUNBIDEA

KOLABORAZIOA

Panplona, euskalduna?

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Iberiar Penintsulan inoiz egon ez zen Estrabon geografo greziararen burutazioari egiten zaio men orokorrean, Nafarroako hiri nagusiaren ustez erdalduna den izenaren jatorria azaltzeko: "Pompeion, como quien dice la ciudad de Pompeio". Udalaren web orrian ere, gauza bera esaten da, Pompeio K.a. 75. urtean bertara iritsi eta hiria sortu zuela. Eta, ondoren, modu ezberdinetan agertu da bere izena mendeetan zehar: *Pompejopolis*, *Pompaelo*, *Pamplona*...

Zabalduen dagoen teoria honen arabera, izen zaharrak, *Iruña*, eta berriak, *Pamplona*, iraun dute azken bi mila urteetan toki berbera izendatzeko.

Nik, ordea, Jon Goitia ingeniari eta geografo bizkaitarraren proposamena egokiago edo, gutxienik, ulergarriago sumatzen dut. Honek, 'anbel/anbil' (amildegi) izenean ikusten du hiriaren izenaren jatorria eta honen kokapena ezagututa, horixe pentsatzera darama (ez dira parrandazale bat edo bi soilik izan Sanferminetan bertako harresitik *amildu* direnak).

Eta aipatu izenetik abiatuta, toponimoaren osagaien



Iruñako kaleen irudikapena duen jaiotza. WIKIMEDIA

bilakabidea hauxe izan daitekeela iruditzen zait: *be(he) + anbil + on + -a* → **beanbilona* → **banbilona* (*panpilona*) → *banblona* (sinkopa) → *panplona* (ezpainkariaren txandaketa).

Bilakabideko azken aurreko urratsa dokumentaturik ageri zaigu Jose A. Conde-ren 1799ko liburuan (*Descripcion de*

España de Xerif Aledris conocido por el Nubiense): "... y de Hisn-Castila á Hisn-Mont-Larina un día; y de él á Medina Bamblona un día; y de Bamblona á Medina Biona sobre la costa del mar dos días..." (Lizarratik Garesera egun bat; hortik Panplonara egun bat; eta Panplonatik Baionara bi egun).

Amildegia ona, orduan, bertan zerbait amiltzeak onurak badakartza, Ipar Amerikan bisonteekin eragindako amiltzeen antzera (Bison Cliff Over).

Honela izanik, izen bereko toponimo gehiago ezagutu beharko genituzke eta hala da. Goitiak "Salinas de Pamplona" Nafarroan eta beste bi Aragonen (Epila eta Muel inguruan) aipatzen ditu. Nik ondorengoak Uharte Arakilen, Aralarren hegoaldeko magalean: *Pamplonagain*, *Pamplonagañeko treguarria-harratea-zokoa*. Eta, ez, ez da bertatik hiriburua ikusten, toponimia ofizialean iradokitzen den bezala, Amildegia dago bere azpialdean, eta begibistakoa bertan animalia saldoak izutu eta amiltzeko eremu honen egokiera. Bereziki adierazkorrak toponimoaren

osagaiak: *b(he)-anb(i)-l-ona* (ez da bera soilik agertzen, generiko moduan erabiliko zutelako) eta *gain* (aipatu generikoaren gainaldea, zelaitua, egokia animaliak xaxatu eta amiltzeko).

Eta, bistan da, toponimoaren osagaiak bilakabidea izan dutela horixe idazteko garaian: Corona Baratech historialariak (1947), 42 aldiz dokumentaturik jaso zuen *Pamplona* (bilakabideko 2. urratsa) 1024-1125 bitartean eta baita *Pomplona* 9 aldiz 1238tik aurrera; Lorenzo Jiménez-ek (2018) *Bambaliuna* 114 aldiz dokumentatuta dauka; eta Monteano Sorbetek (2019, 121) honelaxe ere azken izena: "[Hacia 940] Relato contenido en el libro 'Kitab ar-Rawd ar Mitar'. *Bambaliuna* [Pamplona-Iruña]. *Ciudad de al-Andalus, a ciento veinticinco millas de Zaragoza. Allí estaba la capital de Garcia, hijo de Sancho, en el año 330.*"

Eta *Bamblona/Pamplona* amildegia onaren beheko aldean zegoen toponimoa bazen, amildegia bertara iritsi baino lehenagokoa, goikoa, aldiz, *Iruña* litzateke. Hiru "oin" (Goitiak "triple muela", *ña*, "corte, muela"), alde edo aurpegi (ipar, ekialde, mendebalde) dituen amildegia baten aurrean geundeko, beranduagoko harresiak erakusten duenez.

Egungo historialari askok ukatu egiten du jeneral erromatarra Iruñan bertan egon zenik eta, bestela ere, sinesgarria da orain arte kontatu digutena? Hau da, Iruña kastro zahararen gainean, Pompeiok "*Pompaelo*" eraiki, egun batzuen buruan alde egin eta bi mila urteren bueltan bi izenek iraun toki bera adierazteko? Azalpen eta bilakabide logikoagoa iruditzen zait *anbil/anbel* osagaiduna, zalantzarik gabe. *Pamplona*, amildegia behoko aldean (Errotxapea, Txantrea) eta *Iruña*, berriz, goiko aldean. Horrela errazago ulertzen da bi izenek iraun izana.



Auzatea San Joan ermitan. ARTXIBOA

Arbizun San Joan festak beharrean udako kultur agenda

Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, COVID-19 pandemiak eragindako osasun egoeratik, aurtun ere ez du San Joan festak antolatuta. Aldi berean, jakinarazi du hilaren 24tik agorrila erdialdera arte hartuko duen kultur agenda zabala prestatu duela, "ustez, gustu guztiak asetzeko modukoa" omen da. Arbizuko Udalak aurki emanen du haren berri.

Udarako hainbat kontratazio eginen dituzte udalek

Lakuntzako Udalak udako jardueretarako bost langile kontratatuko ditu. Batetik, Udan Euskaraz jolas gunerako lau begirale behar ditu. Interesa dutenek hilaren 14ra arte dute aurkezteko epea. Bestetik, igeriketa ikastaroak emateko begiralea nahi dute Lakuntzan. Interesatuek hilaren 25era arteko epea dute aurkezteko. **Olatzagutiko Udalak**, berriz, igerilekurako bina sorosle eta atezain garbitzaile eta asteburuko garbitzailea behar ditu. Asteazkenara arte eman daiteke izena. Eta Udan Euskarazko begirale gaiendako astelehenean. **Arbizuko Udalak**, berriz, udako aisialdi tailerretan aritzeko hezitzaileak kontratatu nahi ditu. Interesatuek hilaren 15erako aurkeztu beharko dute curriculum. Azkenik, **Irurtzungo Udalak** musika eskolan ariko den gitarra klasikoko irakaslea kontratatu nahi du. Interesatuek eskabidea hilaren 18ra arte aurkeztu dezakete. Lan eskaintza guztietan euskaldunak kontratatuko dituzte.

DUELA 25 URTE...



Nafarroako odol emaileen festa

XX. Nafarroako odol emaileen festa hartu zuen Etxarri Aranatzek. Odol emaileek trikitilari, gaitari, txaranga eta abesbatzaren emaldiez gozatzeko aukera izan zuten. Nafarroako odol emaileen Adona elkartearen urteko batzarra ere egin zen. Alberto Munarriz presidenteak esan zuenez, aurreko urtea "positiboa" izan zen. Odol emaile berriak egiteko beharra ere azpimarratu zuen. Frontoian 700 pertsona bildu ziren bazkaltzera eta handik jasota, 18:00etan, aizkora apustua izan zuten.

Pentsiodunek mobilizazio orokorra iragarri dute

Gizon-emakume guztiendako pentsio, soldata eta bizi duinak eskatu zituzten

SAKANA

Euskal Herrian eta Estatuko hainbat herri eta hirietan bezala, pentsiodunen mugimenduak deitua, manifestazioak egin ziren larunbatean. Sakanakoa Altsasun egin zen eta 150 pertsona elkartu zituen. Mugimenduko kideek jakinarazi zuten, larunbateko "mobilizazio helmuga eta abiapuntu berri bat da, eta egungo politikak ez aldatzekotan, iragartzen dugu udazkena beste aukera bat izanen dela erakunde sozial eta sindikalekin batera mobilizazio orokor bat antolatzeko".

Izan ere, pentsio duinen mugimenduko kideen iritziz, "pentsioak murrizten ari diren erformek bere horretan jarraitzen dute eta murrizketa berriei atek irekitzen zaizkie. Nahiz eta Toledoko Itunak eta Kongresuko bozketak Pentsio Sistema Pu-

blikoa bideragarria dela agerian uzten duten". Pentsioen sistema publikoa bermatzea exijitu zuen, bestela bere ondorioak "nahikoak ez diren pentsioak eta murrizketa berriak baitira". Lan eta pentsio erreformak "indargabetea" ere exijitu zuten, haiek "prekariatatea, desberdintasuna eta pobrezia areagotzen" dutelako.

Bitartean, Sakanako pentsiodunen mugimenduak Nafarroako Gobernuari exijitu zioten gutxieneko 1.080 euroko pentsioa lortzeko "pentsio txikiei osagarria handitzeko bidean pausoak ematea. Promesa horrekin aurrekontuak aurrera atera zituen eta gaur egun ahaztu egin duela dirudi".

Bestalde, pentsiodunen protesta astelehenero kalean presente egoten segitzen du. Altsasuko Zumalakarregi plazan, 12:00etan.



Santa Marina berritua mustuta

Igandea, Trinitate eguna baliatu zuten Bakaikuko eta Iturmendiko fededunek Santa Marina ermitan egindako lanak mustu eta bedeinkatzeko. 2019ko udazkenean hasi ziren ermita barruko harri artean erortzeaz zegoen morteroa kendu eta harri arteak porlanez estaltzen. Pandemia etorri zen eta lurra berritzeaz irailean bukatu zuten azkenik.

Autokarabanendako habia berria

Larunbatz geroztik erabilgarri da Plazaolako bide berdearen bazterrean dagoen espazioa. 51.336,29 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua izan du eta Cederna Garalurrek 46.785 euroko dirulaguntza eman zuen

IRURTZUN

Sakanako hirugarren autokarabana gunea larunbat goizean mustu zen Irurtzunen. Guneak 10 autokarabanendako tokia du. Gainera, ibilgailuek urez hornitu eta ur beltzak husteko aukera izanen dute bertan. Aitor Larraza Carrera Irurtzuno alkate eta Plazaola turismo partzuergoko buruak azaldu zuenez, "Plazaola bide berdean barna hainbat zerbitzu gune daude eta Irurtzuno autokarabana guneak eskaintza hori osatuko du". Izan ere, ibilgailuendako espazioaz aparte, bizikletak garbitu edo gurgpilak puzteko gailuak ditu. Alkateak iragarri zuenez, aurki hiru mahai eta dagozkien aukiak jarriko dituzte gunean, bidaiariek atsedean hartu edota bertan jan dezaten.

Larrazak jakinarazi zuenez, autokarabana zaleek aurreneko



Lehen bi asteetan dohainik erabili daitezke autokarabanen gunea.

bi asteetan gunea dohainik erabiltzeko aukera izanen dute. Ondoren, bost euro ordaindu beharko dituzte gunean sartzea-

gatik eta horrek bertan bi egun egoteko aukera emanen die. Irurtzuno autokarabana zaleei ere zerbitzua eskainiko die guneak, izan ere, bertan ur zikinak hustu eta ur biltegiak kargatzeko aukera izanen dute. Dagoeneko dozena batek eman dute izena. Urteko 15 euro ordaindu behar dituzte. Interesa duten autokarabana zale irurtzundarrek udal-letxetik pasa beharko dute. Bete beharreko baldintzak dira, batetik, herrian erroldatuta egotea eta, bestetik, Irurtzunen bertan zergak pagatzea.

"Askatasuna ematen du"

AMAIA BARRACHINA TXIMELETA AUTOKARABANA ELKARTEKOA

Irurtzuno alkateari gunea sortzeagatik oroigarria oparitu zion elkarteak.

Zer moduzkoa gune berria?

Oso polita da. Oso eroso eta zerbitzu guztiak ditu. Oso ongi egin dute.

Zer behar du autokarabana batek halako gune batean?

Espazioaz aparte, ur hartunea, ur beltzak husteko aukera eta garbitzeko gune bat.

Autokarabana gune batean aparkatu ondoren, zer egiten duzue?

Bizikletaz ibili, paseo bat egin... Gainera, herriak ezagutzen ditugu eta tabernetan, dendetan gastatzen dugu... Horregatik, herrikoendako



ere garrantzitsua da gunea.

Zergatik ibiltzen zara autokarabanen?

Bizitzeko modu berezi bat da. Autokarabanarekin ibiltzeak askatasuna ematen du. Baita naturatik gertu egoteko aukera ere.

**BIKAIN
GARAJEA**



**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

"Normalizatu behar ditugu bi hizkuntzetako elkarrizketak"

IZASKUN ERRAZKIN BELTZA SAKANAKO MANKOMUNITATEKO EUSKARA TEKNIKARIA
Euskaraldian izandako esperientziaren berri ematen duen dokumentalaren emanaldia izanen da asteazkenean, 18:30ean, Altsasuko Gure Etxea eraikinean

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Joan den urtean buru-belarri aritu zen Euskaraldiaren lantzean eta garapenean Izaskun Errazkin Beltza.

Pandemia betean Euskaraldia egin beharra zegoen?

Egin edo ez, zalantzak egon ziren. Nik uste, beste gauza batzuk tartean, plangintza eta aurrekontu kontuak onartuta zeudela, eta Topaguneak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurrera jarraitzea erabaki zuten. Egia da pandemiak eragin zuela. Gehien bat zabalpena zaildu zuen. **Aipatu zen ere pandemiarekin euskarak kalea eta ikusgarritasuna galdu zituela.**

Sakanako eta Nafarroako Euskaraldiko taldeek egin dituzten balorazioetan, orokorrean, jaso da pandemiak zaildu egin duela zabalpena, herriaren lanketa eta ariguneen lanketa ere, entitate batzuk itxita zeudelako. Baina, aldi berean, koronabirusak ekarri zuen euskararen atzeraldia zenbait lekutan. Euskaraldiaren aitzakiarekin agian beste kasu batean joango ez ginatkeen leku batzuetara jo dugu. Euskaraldia zegoenez, horrek derrigortu gaitu zenbait entitate bisitatzeraz. Herrietan talde batzuk aktibatuta dira; Sakanako ia herri guztietan izan ditugu batzordeak. Agian urte bat gehiago izan bagenu... Baina begira nola gauden aurten, ez dakit konponbidea izan behar zuen. Euskaraldiak euskara eka-

rrari du, mahai gainean jarri du. Zenbait tokitan euskararen inurruan erabakiak hartu behar... Sentsazio gazi-goza da. Baina gozo alde hori ere izan du.

Garbi zegoen ezin izanen zela lehen edizioa bezain arrakastatsua izan.

Sakanako batzordeak noizean behin elkartzeko ginen eta hori hasiera-hasieratik garbi ikusi genuen. Ez genuen kalerik, eta 2018an hor lan handia egin zen; herrian edozer gauza zegoela, mahai bat jarri eta informatzeko edo izen ematea egiteko aprobeztatzen zen. Aurrekoan ikastetxeetan ere lanketa politikak egin ziren eta orain ezin izan da aurrekoan bezain beste landu. Izen ematean jaitsiera nabaritu da.

Batzordeek nola lan egin zuten hiztunak herri aktibatzeke?

Bakoitzak nahikoa funtzionamendu autonomoa zeukan. Egia esan, talde handiegirik ez daukagu ezta herri batean ere, hiru, lau, bost, sei pertsona herrian elkartu eta esan: zer egin dezakegu hemen? Batetik, aztertu zer arigune izan zitzaizkete herrian, eta zeintzuk izanen ziren haien lehentasunak, zeren, agian ezin ginen denetara iritsi. Bigarren lana ahobizi eta belarripresten izen ematea lotzea. Abantaila zen ez zela berria, 2018tik jendeak ezagutzen zuen. Batzuek kultur ekitaldiren bat antolatu dute, besteren batek kultur dinamikaren bat... Batzordeek elkarri ideiak ere eman dizkiote. Esate-

rako, *Euskaralditik Etxealdira* egin zenean, etxeetan jarritako borobiltxo horiekin Lizarraga-bengoan bideo bat egin zuten, gainerakoei gustatu eta beste batzordeek ere egin zuten, bere herrian zabalteko.

Nola lan egin zen euskal hiztunak aktibatzeke?

Sare sozialak eta whatsapp erabiliz. Zabalpenerako indar handia izan dute. Azken momentuan kalera atera ginen, baina gutxi. **Euskal hiztunek bat egin zuten Euskaraldiarekin?** Bai, 16 urtetik gorako 2.171 sakanadarrek eman zuten izena. Aurrekoan 2.609 izan ziren (438 gehiago). Geunden egoeran aurrekustekoa zen ez genuela lortuko aurreko datuetara iristea. Zenbatetan lortzen da Sakanako euskararen erabileran horrelako kopurua? Euskaraldiak horretan eragin nahi du, hizkuntzaren erabileran; gure artean euskara gero eta gehiago erabiltzea, baita ulertu bai baina hitz egiteko gaitasun gutxi dutenekin ere.

Izena emandakoen %80,89 ahobizi izan ziren eta %19,02 belarriprest. Aurrekoaren pareko. Oraingoan lehen edizioan baino belarriprest gehiago erakartzen saiatu ginen. Euskararen erabileran hor dugulako erronka: euskara erabiltzeko zailtasunak izan baina ulertzen duten horiek inplikatu nahi ditugu. Berak lehen pausoa ematen badu eta belarriprest txapa jartzen badu

esaten ari dena da: niri euskaraz egin, ulertzen dizut, gero ikusiko dut zein hizkuntzatan erantzuten dizudan. Horrek erraztu egiten du, eta zilegitasuna eman nahi diegu bi hizkuntzatan egiten diren elkarrizketei.

Jendeak belarriprest eta ahobizi rolak baneratuak ditu?

Badirudi 2018an ez zela guztiz ongi ulertu. Lotu zen ahobizi izatea hizkuntza gaitasun ona izatearekin eta belarriprest ez hain ona izatearekin. Ez da hori. Euskaraz hitz egiteko konpromisoarekin lotuta dago. Rolak erabileraren aurrean hartzen den jarrera bat dira. Ahobizi denak euskaraz ulertzen duen guztiari euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen du. Eta belarriprestek esaten du: niri egin nazazue euskaraz, baina nik agian ez dizut eginen.

Aurrekoan bazegoen sentsazioa hori ez zela erabat ongi ulertu eta orain ez da erraza jakitea hobeki egin dugun. Zeren belarriprest gehiago izatea nahi genuen eta ez dugu lortu. Hori lantzen segitu beharko da.

Ele bitan elkarrizketa gehiago izan dira?

Horretarako zailtasuna dago. Zenbait batzordetik aipatzen zuten Euskaraldia azaro-abenduan izanik, eta harreman oso gutxi genituen garaian izanik, ariketaren inpresio bat izatea zailago egin zaiela: ez dakit esaten aurten Euskaraldiak funtzionatu ote duen, ele bitako elkarrizketa gehiago izan diren edo ariguneek lagundu duten. Euskaraldia bera ikerketa egiten ari da. Horrek daturen bat emanen digu. 2018an ariketa bera kalean baloratzea errazagoa zen.

Euskara bakar bakarrik euskal hiztunen kontua izan behar du?

Erdaldunak zein rol jokatu behar du egunerokoan eta Euskaraldian?

"ULERTZEN DUTEN HORIEK GAUZAK ERRAZTEA, EUSKALDUNOK ASKO ESKERTZEN DUGU"

"EUSKALDUNOK GURE GAIN HARTU DITUGU AGIAN GURE GAIN HARTU BEHAR EZ GENITUEN GAUZAK"

Orain arte aipatu ditugu euskal hiztunak eta ulertzen dutenak. Horiek hitz egiteko gaitasun falta dute, edo ez ausartzea pauso hori ematera. Euskaraldiak plazara gai hori atera du: ulertzen duen horrek asko egin dezake euskararen alde. Normalizatu behar ditugu bi hizkuntzetako elkarrizketak. Lagun artean, familian... gehiago kostatzen zaigu, baina establezimenduetan, dendetan elkarrizketak nahiko "ximpleak" dira, eta ariguneetan hori lortu daiteke. Beste eremu bat da, esaterako, batzar bat. Hori askotan jasotzen dugu: batzarretan zer egin behar dugu, dena bikoiztu? Dena euskaraz eta gaztelaniaz? Ulertzen duten horiek erraztea euskaldunok asko eskertzen dugu. Zilegitasuna eman gauza batzuk euskaraz egiteari. Eta ulertzen duenak ulertzen du, eta hor ez dago arazorik.

Nafarroako beste eskualde erdaldunago batzuetan, zehazki, erdaldunei dagokienez, ulermena ere ez dutenak, erdaldunekin zer egin? Beste figura bat sortu behar da? Erdaldunak zer egin dezake? Gutxienez, asmo ona erakutsi. Euskaldunok konplexuak ere izan ditugulako. Hizkuntza minorizatu da eta urtetako zapalkuntza horregatik konplexu batzuk gureganatu ditugu. Eta gure gain hartu ditugu agian gure gain hartu behar ez genituen gauzak. Erdaldunek gure ariketa honi zilegitasuna ematea eragina izan dezake euskararen erabileran.

Lehen edizioan izena eman zuten batzuek, izenik eman gabe txapa berrerabili zuten?

Saiatu ginen argitzen Euskaraldia bakoitzean parte hartzeko izena eman beharra dagoela. Izen ematerakoan jaso zen zeinek errepikatzen zuten Euskaraldian (%74,99, 1.628) eta zeinek parte hartzen zuten estreinakoz (%25,01, 543). Berri batzuk badaude, eta hori positiboa da. Izen ematea jaitsi da, beraz, aurrekoan parte hartu zuten batzuek ez dute errepikatu. Edo ariketan parte hartu dute eta ez dugu haien konstantziarik izenik eman ez dutelako. **Zein da izen ematearen garrantzia?** Nolabait konpromisoa hartzera behartzen ditu. Ahalegin bat eskatzen dizun ariketa bat dago izen ematearen atzean. Azken finean hizkuntza ohiturekin jokatzen ari garelako. Eta denok ditugu hizkuntza ohiturak. Batzuekin euskaraz hitz egitera



Euskaraldiari buruzko dokumentala asteazkenean, 18:30ean, Altsasuko Gure Etxea eraikinean emanen dute. Gonbidapenak lortian eta Euskara Zerbitzuan daude. ARTXIBOA

ohituta gaude. Beste batzuekin, dena delakoagatik, ez dugu hainbeste ohitura. Hizkuntza ohitura horiek aldatzea posible da. Beti esaten dugu. Ahalegin bat eskatzen dute. Eta izen emateak egiten dizu horren kontzientzia izatea, konpromisoa hartzea. Bestalde, datuak ematen dizkigu, eta ikerketak egiteko balio dute. **Euskaraldiak Sakanan "adina" du?** Profilak mantendu egin dira. Parte hartze handiena 30 eta 44 urte artekoa izan zen (%36,8). Lehen edizioan ere hala izan zen. 16-29 (%23,69) eta 45-59 (%24,78) adin tartean oso antzeko. 60-74 urte artean jaitsi egiten da (%13,17). Hor arrazoi nagusia izan da ezagutza falta. Baina ezagutzari erreparatzen badiogu espero zitekeen 16 eta 29 adin tartean parte hartze handiagoa, euskaldun gehiago daudelako 45 urtetik gorakoan artean baino. Baina lehen edizioan ere detektatu zen Euskaraldiarekin gazte jendearengana iristea pixka bat kostatu zitzaigula.

Euskaraldiak generoa du?

Parte hartzaile emakumezkoak %62,74 dira, gizonezkoak %36,43. Euskal Herrian ere emakumezko gehiago eman zuten izena. Euskararen kale erabileraren neurketetan emakumezkoak gehiago erabiltzen dute. Baina aldea ez da hain nabarmena.

Hamarretik sei emakumezkoak. Euskara feminizatuta dago?

Ez dakit. Ez dela asko lagun bati aditu nion hipotesi gisa erabiltzen dela emakumezkoak moda berriekin lehenago bat egiten dugula. Nik sinatuko nuke hori horrela izatea, moda berria euskaraz hitz egitea izatea. Egia da leku batean baino gehiagotan detektatu dela hori. Denborak esanen du.

Euskaraldiko berritasuna Ariguneak izan ziren. Zein balorazio Sakanan? Ariguneak identifikatuta baldin baditugu, badakizu horra sartu eta euskaraz egin dezakezula. Lehen urtea izan da eta herrietako batzordeoi lan handia eman digu honek. Bertigoa bai, hasieran. Behin kalera aterata eta establezimenduetara joanda, entitateekin harremanetan jarrita, etorri dira emaitzak. Izan ematearen aldetik pozik egoteko modukoak: 119 entitatek eman zuten izena. Hor daude administrazioa, irakaskuntza, elkarteak, dendak, tabernak... Denetarik. Enpresetara ez dugu lortu iristea. Ere mu zaila zen guretako.

Lehen rolekin aipatutakoa, hemen ere zaila egiten zait jakitea nolako sakontasunez landu den entitate bakoitzean. Hor hobetu zitekeen. Baina denbora behar da. Eta egoerak ez zuten lagundu. Aurrez aurreko bilera gehiago egin nahi genituen eta ezin izan da. Norbanakoekin aritu gara, baina gauza batzuk taldean lantzea eskatzen zuten, eta horretarako zailtasunak izan

ditugu. Baina lehen urtea izateko ongi dago.

Ariguneak gelditzeko etorri ziren? Pentsatzen dut baietz eta ahobizi eta belarriprestekin gertatu bezala, txanda bakoitzean ahobizi gisa izena eman beharko dela. Baina aurretik izena eman duten horiekin harremana badugu. Ikusi beharko dugu nola egin dezakegun jarraipenen bat. Horri buelta bat eman behar zaio. **Lortu zenuten herrietako batzordeak aktibatzea.**

2018an oso ongi lan egin zuten. Baina herri batzuetan ez ziren sortu, eta horietara jotzeko erronka jarri genuen. Lizarragan, Lizarragabengoa, Iturmendi eta Ziordian lortu genituen batzordeak. Eta batzordeak diogunean bizpahiru pertsonaz ari gara. Norbait izatea asko da, herri batzordeak gertutasuna ematen diolako. Garrantzitsua da herri batzordearen lana.

Euskaraldiak herrietako euskaltzaleak aktibatu eta batzordean parte hartzeko balio izan zuen?

Zalantzak ditut alde guztietako esperientziak izan ditugulako. Herri batzuetan lortu da taldetxo bat aktibatzea eta martxan jarraitzea. Sortu eta elkartzen segitu dutenak badaude. Herriren batean talde egonkor bat, euskara elkarte bat-edo sortzeko asmoa adierazi dute. Beste batzuk, berriz, nekatu egiten dira, erre-edo. Batzuk tartean desaktibatzen

dira, baina bi urte barru martxan jartzeko prest egoten dira.

Urteetako jarduera jarraitua duen eragile euskaltzale bakarra dago gaur egun Sakanan, Irurtzungo Aizpea euskaltzaleen topagunea. Euskaltzaleen behera egin du?

Bai. Zenbait herrietan Euskal Herrian Euskaraz taldeak daude. Baina, orokorrean, euskalgintza aktibo bat, euskara elkarte bat helburu duenak hizkuntzaren egoera normalizatzea, erabilera... Kostatu egiten zaigu jendeak horrekin bat egitea modu iraunkor edo aktibo batean. Zeren dela ikastetxean, dela kirol taldean... badira beste erakundeetan euskararen alde lanean ari diren norbanakoak. Baina saretu gabe, helburu hori bakarrik duen elkarte baten barruan egon gabe. Beherakada dago.

"EUSKARALDIAREKIN GAZTE JENDEARENGANA IRISTEA PIXKA BAT KOSTATU EGIN ZAIGU"

"ARIGUNEAK IDENTIFIKATUTA, BADA KIZU HORRA SARTU ETA EUSKARAZ EGIN DEZAKEZULA"

Euskaraldiko bizipenak dokumentalean

Iñaki Alforja Sagonek zuzendutako *Biziprest. Gehiagoga* dokumentala Nafarroan barna bira egiten ari da eta asteazkenean Sakanara, Altsasura iritsiko da. Alforjak ikus-entzunezkoan Euskaraldia 2020k nafarregan duen eragina, euskarak pizten dituen sentimenduak erakusten ditu. Horretarako, Nafarroaren aniztasuna islatzen duten lau euskaldunen bizipenez baliatu da.

2020ko Euskaraldia berezia izan zen, zentzu askotan. Elkarren arteko distantzian bizi behar izan genuen. Orduan kalean konpartitu ahal izan ez genituen sentimenduak biziarazten ditu dokumentalak protagonisten kontakizunen bidez. Adin eta motibazio desberdinak dituzten pertsonak dira lau protagonistak, eta bakoitzak bere ikuspegitik kontatu du nola bizi izan duen Euskaraldia, zein eragin izan duen beraien egunerokotasunean, zergatik parte hartzen duten... Lau esperientzia horien haritik, argi ikusten da nola ariketa egiterakoan bakoitzak helburu desberdinak jartzen dizkiogun gure buruari eta, hortaz, zein desberdina den bizi eta sentitzen duguna. Nahi eta behar desberdinei erantzuten diela Euskaraldiak.

Hizkuntza ohiturak hurbilean aldatzeak garrantziaz handia du eta, horretarako, oso eraginkorra da Euskaraldia ariketa soziala. Nafarroan euskara bizirik dagoela eta hizkuntza gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzeko prest dauden hiztunak daudela agerian dago. Erroka handiak daude heldu diren urteotarako. Horregatik, ordu erdi irauten duen dokumentalaren ondoren, beste horren beste irauten duen euskararen erabilera sustatzeko sentsibilizazio tailerra izanen da. Sakandarrek beraien bizipenak partekatzeko tokia ere izanen da.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 4

ETXARRI ARANATZ Euskal astea:
Herri apainketa.
17:30ean, gaztetxetik.

ALTSASU Gazte agenda:
Berriemaileen gala.
18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

BAKAIKU Nafarroa Berriz Altxa
ekimenaren aurkezpena.
19:00etan, plazan.

LARUNBATA 5

ETXARRI ARANATZ Idazketa
tailerra Yolanda Arrieta
idazlearekin.
10:00etatik 13:00etara, kultur
etxean.

ETXARRI ARANATZ Euskal
fiesta. Herri kirolen inguruko
erakusketa.
11:30ean, plazan.

ZORION AGURRAK



Igor
Maite zaitugu!! Ama,
aita eta Ramon.



OLATZAGUTIA Hitzarmen duin
baten alde La Vasco Navarra-ko
langileen manifestazioa.
LABek eta CCOO deituta.
12:00etan, plazatik La Vasco
Navarra lantegira.

ETXARRI ARANATZ Euskal festa.
Txupinazoa eta muralaren
mustutzea.
12:30ean, frontoian.

ETXARRI ARANATZ Euskal festa.
Dutxi omenaldia.
13:00etan, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Euskal festa.
Bingoa.
18:00etan, gaztetxearen gaineko
terrazan.

BAKAIKU Etxebizitza Bakaikun
bilera.
18:00etan, udaletxean.

ALTSASU Gazte agenda. Azken
asteburua: Txobano magoa eta
afaria. 3 euro.
18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Elai Alai eguna.
Kalejira.
18:00etan, herritik zehar.

LAKUNTZA Elai Alai eguna.
Emanaldia.
18:30ean, plazan.

ALTSASU Agur 2020-2021
Ikasturtea Altsasuko Musika
eta Dantza Eskolako ikasleen
emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 6

ALTSASU Artazako lau gaintako
ibilbidea egingen du Altsasuko
Mendigoizaleak taldeak.
08:00etan, egoitzan.

ETXARRI ARANATZ
Naturanitzean gozaten:
Naturaren hizkuntza ikasi eta
ezagutu.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Poliamor para principiantes
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
igandea 6: 19:30

Borrar el historial
gaurkotasunezko filmaren
emanaldia
Osteguna 10: 19:00

Euskaraz nagusiki.
10 euro (12-25 eta 65 urte
gorakoek 5 euro; familiek 20 euro).
10:00etan, Sakanako hariztian.

ARBIZU Fran Balda gogoan
ekitaldia. Arbizuko ezker
abertzaleak antolatuta.
12:30ean, Olatzeako belardian.

ALTSASU Gazte agenda. Azken
asteburua: DeathBass DJ.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Kilimak
musika taldearen emanaldia.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal
Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.



ERRAN.EUS

ETXARRI ARANATZ Hemen baditun 14 erakusketa.
Ekainaren 5ean eta 6an. Eguerdian. Plazan.



UTZITAKOIA

ALTSASU Itziar Nazabalen tailerraren lanen erakusketa.
Ekainaren 13ra arte. Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara,
larunbatetan zuzeneko baina ordu bat lehenago eta igandetan 18:30etik
19:30era. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta
muntaketa • Balkoien eta terrazaren itxitura • Kolore guztietako
mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Iñaki Azkarate
Intxaurreondo**

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi.
Kantuz ene lagunek harturik airian,
kantu egin dezaten nitaz oroitzian.

Komandante Azkarate: bihotzez, mila esker

Altsasuko familia:

Juanjo, Asun, Saioa, Aser, Elai eta Dima

MEZA

**Maria Luisa
Zelaia Mendia**

"Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai
Hauts hartatikan uste gabean noizpait ginaden gu emai."

Maria Luisaren aldeko agurra bihar, larunbata,
ekainak 5, 18:00etan, Altsasuko elizan egingo da eta,
ondoren, errautsak lurperatuko dira.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu ere une latz hauetan
gurekin egon zareten guztioi.

Etxekoak

ESKELA

**Joseba
Jimenez Marin**

I. urteurrena

Zuu bizipoza
zuu irrifarra
zuu umorie
zuu laguntasune
ez ttugu sekule ahaztuko Jime

ZR

Etxarri Aranatzan, 2021eko ekainaren 6an

**IRAGARKI
SAILKATUAK****LUR SAILA****SALGAI**

Etxarri Aranatzan, En-fermogurutzeko dermioan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

GALDUTAKOAK

Altsasun betaurreko graduatuak galduta: Astelehenean, San Juan kale inguruan, estutxe eta funda beltz baten barruan. Aurkitzen badituzu, mesedez, deitu 686 662 241 tfnora.

OHARRAK

Arakilgo Udako Aisialdi Kanpua: Aurtengo egoe-
ra bereziari erantzunez haur kopuru gutxiagoko bi txanda antolatuta dira. Bietako bat aukeratu behar da: 1. Txanda Uz-tailak 19-30 eta 2. Txanda abuztuak 2-13. Adina 5-12 urte bitartean. Ordu-
tegia goizeko 10:00etatik 13:00etara. Prezioa: Pla-
za mugatuak direnez aukeraketa irizpideak honako hauek izango dira:
1. Arakilen erroldatuak, 2. Arakilen bigarren etxe-bizitza dutenak, 3. Irur-
tunen erroldatuak eta azkenik beste guztiak. Arakilen erroldatuak 40€ eta ez erroldatuak 50€. Izena emateko azken eguna uztailak 2. Infor-
mazio gehiago 634 584 223 telefonoan.

Odol emateak Uharte Arakilen: ekainaren 9an, 17:00etatik 20:30ra. www.adona.eus.

**Odol emateak Irurtzu-
nen:** ekainaren 10ean, 16:45tik 20:30ra. www.adona.eus.

Udan Euskaraz tailerra Lakuntzan: 3 urtetik gorako haurrei zuzendua, udan euskaraz aritzeko gunea sortzeko helburua-
rekin. Ekainaren 28tik uztailaren 30era izango da, 10:00etatik 13:00eta-
ra. Elkargunea Kultur etxean izango den arren, ahal den heinean ekintzak kalean egiten saiatuko dira. Izena emateko www.lakuntza.eus web orrian dagoen galdetegia bete behar da eta ordain-
keta ekainaren 14a baino lehen egin behar da.

**Lakuntzako Musika es-
kolako matrikulazio kanpaina:** Ekainaren 15era arte, Internet bidez egin ahal izango da matri-
kulazioa. Eskaintza: musi-
ka eta mugimendua 3-6 urte bitarteko haurrentzat, musika lenguaia, koroa, talde instrumentala eta konboak, instrumentuak (akordeoia, alboka, bateria, gitara, trikitixa, tronpeta, txistu, pianoa). Aurtengo berritasuna Panadero taile-
rra: heldu, gazte zein haurrentzat, lenguaia musikaliak gabe, maila ezberdinak. Bestalde, ins-
trumentuak ezagutzeko Erronda instrumental pre-
sentsiala egingo da ekai-
naren 22an, 15:30ean. Informazio gehiago Lakun-
tzako Udaletxean edo musikaeskola@lakuntza.eus helbidera idatziz.

**Erabilgarri ez diren erra-
diografien bilketa kan-
paina farmazietan:** Na-
farroako Farmaziliarien Elkargoak eta "Mugarik gabeko Farmaziliariek" GKE-k bultzatutako kan-
painak helburu bikoitza

du: batetik, ingurugiroa zaindu, ondo birziklatzen ez diren erradiografiak oso kutsakorrak direlako eta bestalde, duten zilarraren salmentarekin Gobernu-
z Kanpoko Erakundearen proiektuetara funtsak bi-
deratzea. Erradiografiak bakarrik eman, sobre, informe eta bestelakoak kendu eta gero. Kanpainak azaroaren 1era arte iraun-
go du.

Uharte Arakilgo haurren zapiak: 2020an jaino eta Uharte Arakilen errolda-
tuta dauden umei, au-
rrerago zapia banatuko zaie. Erroldatuta ez dau-
den familiek eta interesa dutenek, ekainaren 20era arte izena eman dezake-
te info@uhartearakil.com helbidera idatziz. 2019. urtean jaiotako haurren zapiak ere banatuko dira.

Komunikazio Udaleku irekiak: Mondragon Uni-
bertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak anto-
latuta eta DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteei zuzendua eta eus-
karaz. Gazteak modu kri-
tiko, praktikoa eta diberti-
garria komunikazioaren mundura hurbiltzeko hel-
buruarekin antolatuta ditzu-
te. Bi txanda egongo dira, uztailaren 5etik 9ra edo uztailaren 12tik 16ra, 9:00etatik 13:30era, Are-
txabaletako MU-ren Komu-
nikazio Campusean. Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 18ra arte, prezioa 125 euro. Informazioa gehiago 600 046 689 tf-
noan edo komunikaziou-
dalekuak@gmail.com helbidean. Izena emateko www.goiena.eus/bereziaz/ u-
dalekuak web orrian.

iragarki@guaxe.eus
www.iragarkilaburak.eus

OROIGARRIA

**Yasone Ortega Delgado**

II. urteurrena

Gure artean ez zaitugun arren,
zure maitasunak gure bihotzetan jarraitzen du.

Gurekin egongo zara beti.

Familia

Lakuntza

**JAIOTZAK**

- **Elene Azurmendi Martinez**, maiatzaren 21ean Altsasun
- **Emma Aristu Perez**, maiatzaren 23an Iturmendin
- **Irai Salinas Elso**, maiatzaren 26an Etxarri Aranatzan
- **Nora Berastegi Seco**, maiatzaren 27an Altsasun
- **Anne Fernandez Sergio**, maiatzaren 27an Altsasun
- **Alain Urizar Caldito**, maiatzaren 30ean Altsasun
- **Ekain Garijo Beraza**, maiatzaren 30ean Irurtzunen

HERIOTZAK

- **Mikaela Mikeo Zabaleta**, maiatzaren 26an Irurtzunen
- **Juan Arregi Arregi**, ekainaren 2an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



Labriten jokaturako 39. Irurtzun Pilota Txapelketako kanporaketetako bat. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Irurtzuingo txapelek jabea izango dute bihar

PILOTA Bihar jokaturako dira 39. Irurtzun Pilota Txapelketako finalak, 17:00etan, Biaizpe pilotalekuan. Nafarroako pilotari afizionatu onenak lehiatu dira federazioetako txapelketez aparte Nafarroan jokatu den torneo ia bakarrean

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Apirilaren 5ean hasi zen 39. Irurtzun Pilota Txapelketa, eta bihar, larunbata, final handiak jokaturako dira. Bi hilabete hauetan afizionatuen mailako pilotari onenak lehiatu dira bertan. "Nafarroako Pilota Txapelketak eta Espainiako Pilota Txapelketak kenduta, Nafarroan jokatzeko ari den tradizioko txapelketa ia bakarretakoa da gurea. Txapelketa polita izaten ari da, Nafarroako pilotari afizionatu onenak lehiatzen ari baitira" azaldu du Irurtzun klubeko presidente Miguel Beraza Loidik.

Txapelketa antolatzeke ahalegin handia egin du klubak. "Materiala, epaileak, trofeoak, txapelak eta txapeldunen diru sariak kontuan hartuta, ia 5.000 euroko aurrekontua da gurea. Zorte handia dugu, babesle onak ditugulako. Aurten antolatu ahal izan dugu, datorren urtean ikusiko dugu" gaineratu du. Horri klubeko kideek egiten duten lan ordainezina gehitu behar zaio.

"ORAIN ARTEKOA IKUSITA, FINAL GOGORRAK ETA ZAILAK ESPERO DIRA" MIGUEL BERAZA

Pilotariak eta pilotazaleak biziki eskertu dute Irurtzun klubaren ahalegina, ez baitago ia txapelketarik. "COVID-19 egon ala ez egon, urte luzeko ibilbidea duten zenbait klubek ez dute inoiz txapelketarik antolatu; ez dute xentimorik ere gastatu beste klubetako pilotariak euren klubak antolatutako txapelketa

batean aritzeko aukera izan dezaten. Baina bere pilotariak txapelketa guztietan aritzea nahi dute. Agian hau zenbait klubi egindako kritika gogor samarra izan daiteke, baina nire ustea da. Gure txapelketan Nafarroako klub guztietako pilotariak parte hartu dute, eta guztiek tokia dute" nabarmendu du Berazak.

Txapelketaren beste berritasun bat izan da zenbait partida Labriten jokatu direla. "Nafarroako Euskal Pilota Federazioetik proposatu ziguten, federazioak ostiraletan pilota jaialdiak antolatu nahi dituelako Labriten. Akordiora iritsi eta gure txapelketako 5 jaialdi Labriten jokatu ziren" kontatu digu Berazak. Bai Biaizpera eta baita Labritera ere pilotazaleak frontoira hurbildu dira. "Aurreko astean jokaturako finalerdietan bereziki. Egunero 100 zaletu inguru bildu ziren Biaizpen" nabarmendu du Berazak.

39. Irurtzun Pilota Txapelketa hiru kategorietan jokatu da. Gizezkoen seniorren 1. mailan 12 bikotek parte hartu dute, gizezkoen seniorren 2. mailan 9 bikote aritu dira, eta emakumezkoen mailan 4 bikote.

Finalerdi gogor eta ikusgarriak Aurreko osteguneko finalerdietan, 2. mailako Oskoz-Santamaria eta Murgiondo-Telletearen kontrako partida bertan behera geratu zen, Aitor Telletearen lesioarengatik. Beraz, Murgiondo etxarriarrak agur esan behar izan zion txapelketari. Baita 1. mailako Irurtzun klubeko Elizalde eta Bergerak. Partida lehiatu bezain gogorrean, 19 eta 22 galdu zuten Lasoren eta Minaren kontra. Ostiraleko finalerdietan, 2. mailakoan, De la Fuentek eta Adrian Azpiroz irurtzundarrak 22 eta 16 irabazi zieten Landari eta Agirrerri, eta 1. mailako finalerdian

Finalak

Larunbata, 17:00etan, Biaizpe pilotalekuan.

- **Emakumeak** Aldaregia-Olatz Ruiz de Larramendi / Salsamendi-Bergara
- **Gizonen 2. maila** De la Fuente (Buruzgain)-Azpiroz (Irurtzun) / Oskoz-Santamaria (Oberena)
- **Gizonen 1. maila** Laso (Uhart)-Mina (Paz Ziganda) / Anso (Burlata)-Gil (Esteribar)

Irurtzun klubeko Retegi Bik eta eskuko minez zegoen Lazkoz ordezkatu zuen Azanzak 20 eta 22 galdu zuten Antsoren eta Gilen kontra. Partida oso gogorra izan zen, ordu eta laurden iraun zuena. "1. mailako Irurtzuingo bikoteak finalerdi kanpo geratu dira, eta alde batetik pena dugu, baina arerioak merezimenduz iritsi dira finalera. Zaleei begira, Retegi Biren eta Lasoren arteko finala polita litzateke, baina ez du bueltarik" gaineratu du Berazak. Halaber, Antso eta Gil txapelketako sorpresa izan direla gaineratu du.

Finalerdiak nola joan diren ikusita, final lehiatuak espero dira, goi mailakoak. "Partida gogorak eta zailak espero ditugu. Emakumezkoetan pilotari onenak lehiatuko dira: Andrea Aldaregia eta Olatz Ruiz de Larramendi Laia Salsamendiren eta Arrate Bergararen kontra. Gizezkoen 2. mailan ere lehia polita espero da. Adrian Azpiroz irurtzundarra izango da ordezkari sakandar bakarra. De la Fuentekin batera ariko da, eta Oskoz eta Santamaria izanen dizuzte aurkari. Eta 1. mailan Laso-Mina eta Anso-Gil bikoteen arteko partida tentsio handikoa izango da. Agian Lasok diferentzia markatu dezake, baina gogotik egin beharko du lan Antso eta Gil bikain ari direlako" aipatu du Berazak.

200 ikusle

Gehienez 200 pilotazale sar daitezke Biaizpe pilotalekuan bihar, larunbata, 17:00etan hasiko diren finalerdiak. "200 ikusle hurbiltzen badira, oso kontentu egon gaitzake" dio Irurtzun klubeko presidentek. Ostalaritzako ordutegiak ere lausotu direnez, giro polita espero da Irurtzunen.

Buruz Buruko 3. postua jokoan, edo gehiago?

2021eko Buruz Buruko Txapelketak azken unera arte izango du zeresana. Altuna eta Artola sailkatu dira finalerako, baina Rezustaren kontrako finalerdian Artola lesionatu egin zen, eta finala ekainaren 20ra atzeratu dute. Ikusteko dago Artola osatuko den, eta osatuta ere, nola iritsiko den.

Bitartean, Zabaletak eta Rezustak Buruz Buruko 3. eta 4. postua erabakitzeke partida jokaturako dute igandean Irunen, baina Artolaren lesioak bestelako balioa eman dio partidari, Alegikoa finalerako osatzen ez bada, 3. postuan sailkatzen den pilotariak jokaturako baita finala bere orde. Beraz, hau ez da bukatu.



Zabaleta eta Rezusta jokoan, artxiboko irudian. ARIZMENDI



CBASK Jatorman taldea asteazkeneko entrenamendua hasi baino lehen. Goian, ezkerrean, Iosu Mendiola entrenatzailea. UTZITAKOA

Lauko Finala etxean lortzera

SASKIBALOIA Zelandi kiroldegiak hartuko du Autonomia Arteko 2. Mailako Lauko Finala. Larunbateko finalerdietan CBASK Jatormanek Berriozarko Humiclima izango du arerio eta gogotsu eta konfiantzarekin dago Iosu Mendiolaren taldea

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
CBASK Jatorman taldeak Autonomia Arteko 2. Mailako Lauko Finala edo Final Fourra jokatu du. Balentria larunbatean lortu zuen, Avia Zizur Ardoiren kontrako itzulerako partidaren 43 eta 73 gailendu eta gero. Joaneko partidaren, Zelandin, 66 eta 70 gaildu zuen talde altsasuarrak, eta Lauko Finalerako sailkatzeko 5 punturen aldeaz irabazi beharra zuen itzulerakoa. Sekulako erakustaldia eman eta gero, 40 punturen aldearekin gailendu ziren Iosu Mendiola Marañon arbizuarrak zuzentzen dituen gazteak.

"LAUKO FINALA UNE EGOKIAN HELDU ZAIGU; URTE OSOAN EZ GARA HORREN ONGI EGON" IOSU MENDIOLA

Harritzekoa da CBASK Jatormanek Avia Zizur Ardoiren kontra lortutako aldea. "Joaneko partidaren, Zelandin, beraiek nahiko ongi egon ziren, baina gu nahiko gaizki. Eta hala ere gutxiatik galdu genuen. Hortaz, hobetuz gero irabazteko aukera izango genuela uste genuen, eta horrela izan zen. Gure aukerak zeintzuk ziren oso argi genuen, eta zer egin genezakeen. Gero beti behar duzu zorte puntu hori, eta hori ere alde izan genuen. Uste dut beraiek hasieratik ikusi zutela gu oso ongi jokatzen ari ginela, beraiek ere ez zuten euren egun hobereana izan, moralki behera egin zuten, eta euren gainetik pasa ginen. Nahiko erraz irabazi genuen, egia esan. Harritu ninduen izan zen 30 puntuko aldearekin gailentzea, baina irabazteak ez ninduen harritu" aitortu du entrenatzaileak.

Une gozoa
Autonomia Arteko 2. Mailan aurtengoa 3. denboraldia du CBASK Jatormanek, eta denboraldi bikaina egin dute. Taldea konfiantzarekin dago, gogotsu. "Uste dut urte osoan ez garela horren ongi egon; beraz, une aiposean heldu zaigu Lauko Finala" nabarmendu du Iosu Mendiolak.

CBASK Jatormanekin batera, San Ignacio eta San Cernin, Iruñeko bi ikastetxe, eta Berriozarko Humiclima sailkatu dira Lauko Finalerako. Lauko Finala asteburu honetan jokatuko da,

"FINALERA? ERRITMO ALTUAN JOKATZEN BADUGU AUKERA IZAN DEZAKEGU" IOSU MENDIOLA

Altsasuko Zelandin, eta saskibaloiei festa handia izanen dena antolatzen ari da CBASK Altsasuko Saskibaloiei Kluba. "Zizurren kontra irabazi eta gero, animatu ginen eta Nafarroako Saskibaloiei Federazioan Final Laukoa Altsasun antolatzeko proposamena egin genuen. Beste proposamenik egon ezenez, Zelandin jokatuko da, asteburu honetan.

Humiclima, lehendabiziko arerio
Larunbatean Lauko Finalerako finalerdia jokatuko dira. CBASK Jatorman taldeak Humiclima izango du arerio. Ligan elkarren kontra aritu zirenean, CBASK etxeko partidaren gailendu zen eta Humiclima Berriozarko lehian. "Beteranoak dira, gu baino askoz ere helduagoak esperientzia aldetik. Kalitate handiko partidak jokatutako jendea da, halako finalak jokatzen esperientzia duena. Agian fisikoki ez daude lehen bezala, baina oso ongi jokatzen dakien jendea da. Gu, aldiz, gazteak gara, fisikoki hobe gaude, askoz ere ilusio handiagoa dugu, edo hori espero dut behintzat (kar, kar...) eta etxean jokatzen dugu. Talde polita dugu aurten, eta zerbait polita egin dezakegun. Ilusioz eta konfiantzarekin gaude, guztiz" azpimarratu du entrenatzaileak.

Lauko Finalerako sailkatu diren lau taldeak nahiko orekatuak ikusten ditu Iosu Mendiolak, egoera berean. "Aurten, denboraldia ere halakoa izan denez, ia ez dugu partidarik jokatuko talde osoa ongi geundela. Beti egon da konfinaturen bat edo lesionatuen bat. Prestakuntza ez da berdina izan, itxiera perimetralak eta konfinamenduak zirela eta ligan ez da jarraikotasunik egon –aste batzuk geldirik egon behar izan dugu, gero bat-batean berriro martxan hasi...– entrenamendu gutxiago izan dira, eta horrek eragin zuzena izan du lesioetan. Aurten plantilla guztia ongi egotea ia ezinezkoa izan da" dio Iosu Mendiolak.

Finalera, zergatik ez?
Igandeko final handian egon nahiko luke CBASK-Jatormanek. "Zergatik ez? Gauzak ongi egiten baditugu eta erritmo altuan jokatzen badugu, Humiclimakoak partida bukaerara ez dira fisikoki oso ongi iritsiko eta guk irabazteko aukera izan dezakegu. Ea horrela den" espero du entrenatzaile arbizuarrak.

Lauko Finala

Autonomia Arteko 2. Mailako Lauko Finalak, Zelandi kiroldegian.

Finalerdia (larunbata)

- 16:00 San Cernin / San Ignacio
- 18:00 Humiclima / CBASK

Finala (igandea)

- 16:00 3. postua / 4. postua
- 18:00 Finala

Zelandi, 200 zaleren gotorleku
Pandemia dela eta, 200 pertsonendako aforoa du Zelandik. "Zelandin 200 zale biltzen baditugu, hori izango da lortuko dugun hobereana. Eta irabazten badugu, hobeto. Gainera, ez dute eguraldi oso ona iragartzen, eta Lauko Finalaz gozatzea baino plan hobegorik ez dut ikusten" dio Mendiolak irribarrez. Sakandarrak CBASK Jatorman animatzera eta Zelandi CBASK Jatormanen gotorleku eta bolborategi bihurtzera gonbidatu ditu. "Hau berezia da; Lauko Finala da, emozio handikoa, eta animoak eskertuko ditugu" berretsi du.

Festa handia

Lauko Finala ez da soilik saskibaloiei final bat. Festa handia da. Atsedendietan Dantzari-mak dantza erakustaldia egingen du, DJ-ak giroa berotuko du, musika entzungo da eta zozketa izanen da. Igandean final handia irabazten duen taldeak, sari bikoitza izango du: Autonomia Arteko 2. Mailako txapeldun handia izango da, eta Autonomia Arteko 1. Mailara igoko da. Maila horretan, Nafarroako eta Errioxako taldeez gain, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaikoak daude. "Baina hori beste kontu bat da. Printzipioz, dugun guztia ematera aterako gara, ongi pasatzera, Zelandiko ikusleak ongi pasaraztera, festa polita antolatzera, eta, ahal bada, irabaztera. Gero, gero-koak" dio entrenatzaileak.

"ZELANDIN 200 ZALE BILTZEA, HORI LITZATEKE POZGARRIENA" IOSU MENDIOLA

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Duela bi asteburu, maiatzaren 22an eta 23an Espainiako Masters Mailako Atletismo Txapelketak hartu zituen Sabadellek. Izaskun Beunza Azazeta olaztiarrak Miliako Txapelketan parte hartu zuen, eta Espainiako txapelduna dugu F35 kategorian.

Masters Mailako Espainiako Milia Txapelketako txapelduna zara F35 mailan. Zorionak Izaskun!

Eskerrik asko! Masters Mailako Txapelketa izan zen, eta F35 mailan aritu nintzen. Maila horrek 35 eta 39 urte bitarteko atletak hartzen zituen. Txapelketa honetan estreinakoz aritu nintzen, eta txapelduna. Oso pozik nago. **Milia batek 1.609 m. ditu.**

Korrika zaudenean 9 m. horiek antzematen dira, bai (kar, kar...).

Martxoaren 27an Nafarroako Milia Txapelketan bigarren izan zinen (05:22), Sara Pradosen (05:20) atzetik. Espainiako Masters Txapelketan 05:16 minutuko denbora egin zenuen, denbora hobea.

Horrelako txapelketetan egiten duzun denbora edo marka gutxienekoa da. Bilatzen duguna posizioa da, postua. Hau da, proba irabaztea edo gutxienez lehendabiziko hiruren artean sartzea. Horregatik, halakoetan lasterketak estrategikoak izaten dira. Hasierako bueltetan inork ez du buruan jarri eta aurrerapen eman nahi, aurrean doanak taldeaz tiratzen duelako, eta azkeneko metroetan egindako ahalegina ordaintzen duzulako. Espainiako lasterketa azkarragoa izan zen, baina bi probatan gutxi gorabehera antzekoa gertatu zen.

Eta zer gertatu zen?

Miliako lasterketan 4 buelta dira. Nafarroakoan, nik banekien Sara oso indartsu zegoela. Sara nire atzean kokatu zen, eta nik pentsatu nuen: "ba ez naiz aurrean jarriko...". Lasterketa aurrean gu baino pixka bat motelago diren korrikalariak zihoazen, eta gu bata besteari begira ea zer pasatzen zen. Horrela hiru buelta egin genituen, eta azkenekoan, 500 metro falta zirenean, ez nuen gehiago aguantatzen, aurreratu nintzen, Sara nire atzetik etorri zen eta azken 100 metroetan aurreratu ninduen.

Espainiakoan antzekoa gertatu zela esan duzu, baina kasu horretan zuk irabazi zenuen.

Bai, beste modu batera baina nahiko antzeko. Etxetik erabakita nuen zer egin behar nuen, eta estrategia ondo atera zen.

"Sari onena nire buruan sinistea eta gertukoak pozik ikustea da"

IZASKUN BEUNZA AZAZETA KORRIKALARIA

ATLETISMOA Masters Mailako Espainiako Milia Txapelketako F35 lasterketa irabazi zuen olaztiarrak Sabadellen. 1.500 metroko marka ontzea da bere hurrengo erronka



Izaskun Beunza bere taldekide Amaia Velazquezekin, Sabadellen. UTZITAKOIA

Espainiako Txapelketa igandearrekin jokatu zen, eta asteazken horretan, maiatzaren 19an, 1.500 metroko kontrol bat zegoen Larrabiden. Espainiako 1.500 metroetan lan ona egin nahi dudanez, Sagrario Izquierdo nire entrenatzailearekin batera erabaki genuen nahiago genuela Larrabiden marka on bat egitea eta Espainiako Milia bigarren toki batean uztea. Larrabideko 1.500 metroko kontrola ongi atera zen, baina lehertuta bukatu nuen. Orduan, Sagrariok esan zidan Espainiako Milian atzean joan behar nintzela, gainontzekoak nola zihoazen kontrolatzen, eta azken metrotaraino ez erasotzea, hori zela gure estrategia. Lasterketan, ni lehen kalean atera nintzen, eta guztiak nire atzean jarri ziren. Eta pentsatu nuen: "ba ez, ez naiz aurrera joan behar", eta oso mantso hasi nintzen korrika. Hori ikusita, gainontzekoek aurreratu ninduten, eta lehen buelta oso poliki egin genuen.

Noiz azkartu zenuen erritmoa?

Bigarren bueltan erritmoa aldatu, eta hirukote bat geratu ginen aurrean. Ni hirugarren nindoan,

"GAUZAK DIREN BEZALA: PISTA ASKO GUSTATZEN ZAIT PISTAN HOBE NABILELAKO"

eta nire buruari esaten nion: "eutsi, ea hemen atzean aguantatzen duzun". Probako laugarren eta azken itzulian, kanpai bueltan, erritmoa aldatu nuen. Topera egin nuen aurrera eta txapelketa irabaztea lortu nuen. Ongi ateratzen, baina taldekideek esan zidaten ausartegia izan nintzela, erritmo aldaketa hori helmugarako 400 metroren faltan egin beharrean, helmugarako 200 metroren faltan egin behar nuela. Azkarregi aldatu nuela. Baina hori nire izaera da, ez nuen gehiago aguantatzen eta hor joan nintzen (kar, kar...). Hori bai, azken 100 metroetan asko sufritu nuen. Beste baterako, lasaiago ibiltzeko, 200 metro falta diren arte eutsi beharko dut.

Larrabideko 1.500 metroko kontrola aipatu duzu. Zure helburua Espainiako 1.500 metroko Txapelketa al da?

Bai, aurrean distantzia hori prestatzen ari naiz. Larrabiden ongi ibili nintzen, eta nire denbora hobetu nuen: 4:42 minutu. Aurretik nuen denbora 2 segundotan hobetu nuen. Nire helburua da maila mantentzea eta marka hori hobetzen joatea, ekainaren-18tik 20ra Malagan jokatu diren Espainiako Masters Txapelketara joan ahal izateko.

Nolako presioa kronometroari horrela begiratzeko horrek!

Baina horrek zoriontsu egiten gaitu (kar, kar...) Azkenean 2 segundo guretzat asko dira.

Malagan Nafarroa ordezkatu duzu edo Beste Iruñea zure klubarekin parte hartu duzu?

Nire kabuz joango nintzateke Beste Iruñearekin. Gure klubak, Beste Iruñeak, ez du Klubaren Arteko Espainiako Atletismo Txapelketan parte hartzen. Soilik Pamplona Atletico Grupompleok parte hartzen du klubaren artekoan.

Espainiako Masters Txapelketan parte hartzeko gutxieneko markarik eskatzen al dute?

Halako txapelketetara joan ahal izateko gutxieneko marka bat behar duzu, eta nik badut. Hori gauza bat da, baina bestea da zure buruari eskatzen diozuna. **Badirudi zure buruari gehiegixko eskatzen diozuenetakoa zarela.**

Bai, halakoa naiz, eta hori eraman jakin behar da. Halakoa izanda sufritzen da, bereziki zure bizitzako arlo guztietan horrelakoa bazara. Baina baditu bere konpentsazioak ere. Jakin behar da gauzak ez direnean ondo ateratzen, ez dela ezer pasatzen.

Hori guztia lortzen baduzu, zorionekoa zu.

Horretan nabil, gutxika. Lan mental handia dago atzean. Askotan kirola ere horrela da, burua. Burua landu behar da lan fisikoa bezain beste.

Noiz hasi zinen korrika?

Kirola beti gustatu izan zait eta beti egin izan dut, baina atletismoa ez nuen egiten. Unibertitateko karrera bukatuta hasi nintzen korrika, zerbait egitearren. Gogoan dut Olaztitik Ziordira hasi nintzela korrikan, partzelariatik bueltatxo batzuk ematen, Beste Iruñeatik deitu ninduten arte.

Normalean txikitatik trebatzen dira atletak. Zu berantiarra zara, eta lortu duzun maila kontuan hartuta, meritua baduzu.

Oso berandu hasi nintzen, eta Sagrariok askotan esaten dit, natorren tokitik noraino heltzeko aukera izan dudana begiratu, harro egon behar dudala. Niretzat Espainiako Txapelketara joatea oso polita da, lehen edo azkena sailkatu. Normalean azkeneko postu horietan sailkatzen naiz, baina hor egotea, nondik natorren kontuan hartuta, oso polita da. Harro egoteko modukoa.

Azkenaldian gehiago ari zara pistan. Gustukoago duzulako edo pandemiagatik pistetako atletismoa mantendu den kirol gutxienetako bat izan delako?

Nik tartana oso gustukoa dut. Gauzak diren bezala: pista asko gustatzen zait pistan hobe nabil. Azkarra naiz, baina ez daukat indar handirik. Printzipioz krosak gustukoago ditut, baina halako probetan indarra behar duzu eta indar aldetik justuago nabil. Ildo honetan, pistetako proba azkar horietan emaitza hobekien lortzen ditut. Eta, azkenean, hobekien egiten duzuna duzu gustuko. Pista probatu nuenetik asko gustatu zitzaidan, eta egia da pandemian atletismo pista egon den gauza bakarretakoa izan zela. Gustukoa dut, pistan ibiltzeko aukera dut... eta horregatik ibili naiz azkeneko bi urte hauetan pistan buru belarri.

"ESPAINIAKO 1.500 METROKO LASTERKETAN NIRE BURUAREKIN ERRONKA DAUKAT"



Izaskun Beunza pistan, ahalegin betean. UTZITAKOA

Mendi lasterketaren batean ikusiko zaitugu edo alboratuta dituzu?

Ez, mendian ikusiko nauzue, herriko proban bereziki. Olatzagutia-Urba mendi lasterketa antolatzen den uneoro, korrika egiteko moduan banago behintzat, hor izango naiz. Eta Sakanan egiten diren beste proba batzuetan ere, beste zerbait prestatzen ez banago behintzat.

Pandemiak eragina izan al du zure errendimenduan edo marketan? Atleta batzuk aipatu zuten iaz marka okerragoak egin zituztela.

Agian maila goreneko kirolariendako, pandemiaren geldialdi hori kaltegarria izan zen, baina entzun ere entzuten da beste batzuei atsedena denbora hori ongi etorri zitzailela. Azterketa batzuek diote kirolari baten emaitzarik onenak lesionatuta egon eta gero lortzen direla, denbora batean gorputzari atsedena ematea oso ona dela gerora begira marka onak egiteko. Zerbaitengatik esango da.

Espainiako Miliako F35 mailako txapeldunak zer trofeo jaso zuen? Zer ekarri zenuen Sabadelletik?

Poza (kar, kar...). Amak berdin galdetu zidan telefonoz: "Zer eman dizute? Domina txiki bat". Zure

buruan sinistea, niretzako hori garrantzitsua da, eta askotan bilatu izan dut. Iruñean sarritan esaten didate besteok nigan gehiagoko sinisten dutela nik nire buruan sinisten dudana baino. Sagrariok esaten dit beti: "sinistu beharra duzu". Eta agian, txapelketa hau irabazi izana eta halakoak ongi datozkit neure buruan konfiantza izateko. Nire buruari esateko: "lortu ahal duzu". Eta hori da nire oparirik onena: lortu dut lortu dezakedalako. Eta nirekin joan zen jendea horren pozik ikustea, nik irabazi nuelako hunkituta, hori da oparirik onena. **Atletismoan gustuz aritzen zara, zaletasunagatik, baina zuk zure lana duzu, arkitektoa zara.**

Bai, eta hor oso argia izan nahi dut. Ni ez naiz atleta, niretzako hau hobby bat da. Nire lana atletismoa baino lehenago dago, hori argi dut. Baina atletismoak asko ematen dit; poztasuna

"ATLETISMOAK ASKO EMATEN DIT: POZTASUNA. GUSTUKO DUZUNA EGITEAK ASKO BALIO DU"



1.500 metroko Larrabideko kontrolean bere marka gainditu zuen: 04:42. UTZITAKOA

ematen dit. Lan egun gogor bat izan eta gero, zuk gustuko duzuna egiteko aukera izateak, horrek asko balio du. Beraz, nire buruarekin erronka daukat Espainiako 1.500 metroko lasterketan. Lortzen badut ongi eta, bestela, hurrengo urterako. **Atletismoan marka onak dituzu. Izan duzu zure betiko kluba, Beste Iruñea, uzteko tentazioa atletismoan talde handia den Grupompleo Pamplona Athleticora joateko?**

Ez, eta bi arrazoiengatik. Lehengoa, eta garrantzitsuena, horrelako talde batean egoteko mailarik ez dudalako. Urteak daukat, ez daukat progresiorako tarte handirik. 18-20 urte izango banitu, hobetzeko tarte nuke eta, agian, halako talde batekin lehiatzeko aukera. Baina hori ez da nire kasua. Eta, bestetik, Beste Iruñean hasi nintzenean han ezagutu nuen egun nire entrenatzailea den Sagrario Izquierdo. Nire entrenatzailea dela diot, baina bera ez da soilik entrenatzailea; nire bizitzan garrantzitsuenetakoa den pertsona bat da, lagun ona. Egiten ditudan gauza guztietan bera hor dago, laguntza ematen. Horregatik, Beste Iruñea ez dut

uzten maila ez dudalako, eta izango banu ere Sagrario bezalako pertsona bat uztea niretzat oso gogorra litzatekeelako.

Klubean artean pike sanoak egoten dira, baina Grupompleo beste maila batean dago, maila gorenean.

Nik atletismoarekin disfrutatzen dut eta emaitza politak dauzkat, baina ez du zerikusirik Grupompleon daudenekin. Txapelketa handietara bideratuta dagoen taldea da, baina, aldi berean, jende umila da. Harreman ona dugu, bakoitza non dagoen jakinda. Lasterketetan laguntzeko prest daude. Niri lagundu izan didate, baina gero bakoitzak berea.

Zorte on Malagan! Ea gutxika Sakanako probak itzuli eta bertan ikusten zaitugun.

Eskerririk asko! Herriko lasterketa horiek oso politak dira, giroagatik. Gogotsu nago halakoren batean parte hartzeko.

"TXAPELKETA IRABAZI IZANA ONGI DATORKIT NIRE BURUARI ESATEKO: LORTU AHAL DUZU"



Goizean goiz abiatu zen Arakilen barnako bizikleta martxa. Ondoren ipuin kontalaria, tailerrak eta jokoak izan ziren. UTZITAKOIA

Bizikleta martxa bat baino askoz ere gehiago

TXIRRINDULARITZA Sakanako Mankomunitateak igandean Itxasperrin antolatutako Bizikleta Ibilaldi Berezian ehun pertsonatik gora bildu ziren. Antolatutako ekimenetan aniztasuna, elkartasuna, berrerabilpena eta bestelako baloreak landu zituzten

Maidar Betelu Ganboa ARAKIL Sakanako Mankomunitateko Kirol, Euskara, Berdintasun eta Anizartean Kulturartekotasun Zerbitzuek, elkarlanean, goiz berezia antolatu zuten igandean Itxasperrin: Bizikleta Ibilaldi Berezia. Eguraldi eguzkitsu baina sanoa lagun, ehundik gora lagun bildu ziren ermita erromaniko ederraren aurreko paraje paregabe, antolatutakoez gozatu, goiz ederra pasatu eta kirola egitearen aitzakiarekin Sakanako beste herrietako jendea ezagutu eta elkar ezagutzeko.

Izan ere, Bizikleta Ibilaldi Berezia bizikleta martxa bat baino askoz ere gehiago da. "Iruditzen

zaigu kirolaren edo jarduera fisikoaren aitzakiarekin, kasu honetan bizikleta martxa batekin, jendea elkartzen dela, eta horrek zenbait balore lantzeko aukera ematen duela. Eta hori da egun honen helburua, balore horiek lantzea" azaldu du Mankomunitateko teknikari Izaskun Razkin Beltzak.

Aniztasuna, euskara, natura...

Lantzen diren baloreak anitzak dira. "Batetik, eta kiroletik abiatuta, helburua sedentarismoari aurre egitea da. Hori da Kirol Zerbitzua orain bereziki Sakanako Eskualde Aktiboa programarekin sustatzen ari dena. Arakilen

barna egindako bizikleta ibilaldiarekin jorratu genuen. Horretaz gain, aniztasuna landu nahi dugu. Jatorri eta kultura ezberdinetako sakandarrak elkartu nahi ditugu, eta kirolak eta antolatutako tailer eta ikuskizunek ere eman zuten horretarako aukera: ezberdinak elkartu eta elkarrekin egon eta elkarrekin jolastu. Ipuin kontalariaren emandakia aurten berria izan da. Izaskun Mugika ipuin kontalariari eskatu genion balore horiek lantzea bere ipuinen bidez: aniztasuna, txikiak zaindu beharra... Esaterako, euskara txikia da baina Sakanako hizkuntza da eta zaindu nahi dugu. Ildo ho-

rretan, aisialdian euskararen erabilera zein garrantzitsua eta gustagarria den aldarrikatu nahi dugu. Izaskunek, planteatu geniona ederki ulertu zuen eta emanaldi bikaina egin zuen. Elkartasuna landu genuen ere, gurean erabilitako kirol material biketa egiten delako. Bizikletaren bat, patin batzuk, kasko batzuk... eta halakoak jaso ziren, Apoyo Mutuo-Elkarri Laguntza elkarteari eman genizkionak. Gero, material hori horren beharra duen norbaitek jasoko du" nabarmendu du Razkinek.

Berrerabilpenaren balioa eta natura zaintzea dira lantzen dituzten beste balore batzuk. "Bizikleta tailerrarekin gauzak konpontzeko balorea lantzen da. Sarritan ohituta gaude zerbait hondatzen bada botatzera eta berri bat erostera. Eta gehienetan konpondu daiteke. Eta aurten, espero ez genuen gauza bat gertatu zen. Boluntario batzuk etorri zitzaizkigun, Jasone Etxebeste eta Natalia Razkin lakuntzararak, eta hautsitako edo zulatutako kamarekin eskumuturrekoak eta koilareak egiteko tailerra prestatu zuten. Sekulako arrakasta izan zuen. Natura zaintzearen balioa jorrazteko, esango nuke ere lekuak asko lagundu zuela. Itxasperi toki zoragarria da, eta egiten zuten eguraldi ederrarekin primerako eguna izan zen" azpimarratu du euskara teknikariak.

Arakilgo txokoak ezagutzen

Eguna Arakilen barna antolatutako bizikleta martxak abiatu zuten. "Itxasperritik Egiarreta aldera abiatu ziren, Etxarrenera. Gero autobia gaineratik beste aldera pasa eta Zuhatzu eta inguru horretan ibili ziren eta bueltan, batzuk Itxasperrin geratu ziren

eta nahi zutenei Etxeberrira igotzeko aukera eman zitzaizen. Ordu eta erdiko ibilbidea izan zen, eta gustura aritu ziren txirrindulariak. Familiak eta adin ezberdinetako haur eta gaztetxoak zeuden" aipatu du Razkinek.

Gehienak Arakilaldekoak ziren, baina Etxarri eta Lakuntzako jendea ere bazegoen. Ekimena Sakana guztiari zabalik dago, baina normalean bailara bakoitzekoek beren txokoetan parte hartzen dute gehiago. "Horregatik egiten dugu urtero eskualde ezberdinean. Aurten 130 lagunek eman zuten izena, eta nik esanen nuke ehunen bat edo elkartu ginela. Oso ongi pasatu genuen" gaineratu du teknikariak.

Muruzabal bizikleta dendako Joxi Lazkozek makina bat lan eta erakustaldi egin zuen bizikleta konpontzeko tailerrean. Bestalde, bizikleta martxan parte hartu zutenen artean Muruzabal etxeko materiala zozketatu zen, eta bitartean jolas kooperatiboan eta koilareak egiteko txokoetatik zebiltzan partaideak. "Jolasetan eta tailerretan jendea nahastu egiten da, hori da beste helburuetako bat, eta harremana sortu zen".

Balorazio ona

Izandako arrakasta ikusita, ekimenak segida izan behar duela baieztatu du Razkinek. "Balorazioa oso ona da. Pozik gaude jarduerarekin, eta aurrera egingo dugu. Datorren urtean Burundan edo Aranatzan izanen da".

"JATORRI ETA KULTURA EZBERDINETAKO SAKANDARRAK ELKARTU NAHI DITUGU" IZASKUN RAZKIN BELTZA

Merezitako atsedena

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak salbazioa eta Areto Futboleko 1. Mailari eustea lortu du liga bukaera gogor, estu eta larrian. Imanol Arregik aitortu duenez, "inoiz baino nekatuago" despeditu dute denboraldia. Orain, merezitako atsedena hartu eta datorren denboraldirako berrindartuta itzuli nahi du talde irurtzundarrak.



XOTA

Zaila, baina ez ezinezkoa

FUTBOLA Maitane Vilariñoren Osasunak ez zuen 1. mailara igotzea lortu, eta Irati Igoaren Mulierrek Espainiako 1. Nazional Mailari eusteko borrokan jarraitzen du. Tolosarekin bina berdindu eta gero -Igoak sartu zuen Mulierren bigarren gola-, asteburuan Mulierrek San Ignacio du aurkari, eta datorrenean Arratia. Irabazi beharreko bi partida zail.



MULIER

Eneida C. M. / Erkuden R. B. ALTSASU

Tinko gurean da Iheskide musika taldearen lan berria. Taldea 2004. urtean sortu zen, Elorrion, Ihesbide izenarekin. Boskote bat biltzen zen musika egiteko, "ihesbide bat zelako guretzako". Taldeak ibilbide "gorabeheratsua" izan du, eta duela urte batzuk geldialdia egitea erabaki zuten kideek. Orain, hirukote bezala itzuli da. Aldaketak izan arren, taldeak betiko esentzia mantentzen du: "Rocka zainetan, punka izaeran eta borroka bihotzean". Lan berria beraiek ekoiztea erabaki dute, eta egoerara egokitu dira ere. Ekainaren 12an, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean kontzertua eskainiko dute.

Taldearen beste ziklo bat hasi da?

Taldearen itzulerak beste ziklo bat markatzen du. Argi dugu denbora aurrera joan ahala gure egunerokotasuna eta bizi proiektuak aldatzen direla, beste gauza batzuk ezinbestean lehenesten ditugu. Baina aldaketa horrekin batera eta haietara egokituz, esan dezakegu ziklo berriari egurra emateko prest gaudela. Katak taldea uztea erabaki zuen, eta hirukote moduan jarraitzea erabaki genuen. Horrela atera da *Tinko gurean* diskoa. Hiru urte horietan jendeak idatzi digu esanez ea bueltatu behar ginen, eta horrek bultzatzen zaitu. Publikoarekin *feedback* hori ezinbestekoa da.

Punk-rock talde baten kontzertua antzoki batean. Posiblea da?

Kontzientzia gara ez dela punk rock kontzertu bat eskaintzeko lekurik aproposena. Baina, aldi berean, jarrera kontua dela uste dugu. Beste edozein kontzertu bezala prestatuko dugu. Hasieran dudak izan genituen. Disko berria atera dugu, egoera berezia, baldintzak, neurriak, zuzenekoak... baina kontzertua eskaintzera begira, betiko "normaltasunari" eutsi nahi izan diogu. Jendearentzat berezia izan dadin ahalegina egingo dugu; antzoki batean egotearen eta kontzertua eserita ikustearen "normaltasun ez" hori gure doinuekin eta oihuekin oldarraldiaz apurtuko dugu.

***Tinko gurean* disko berria aurkeztuko duzue. Nolako da diskoa?**

Hirukote formatura pasatzeak aldaketak ekarri ditu diskora. Baina era oso naturalean atera dira kantak eta formatu aldaketa bera ere. Diskoa azkarragoa eta zuzenagoa atera da, nahiz



Iheskide taldeak disko berria aurkeztuko du ekainaren 12an Iortia kultur gunean. UTZITAKOA

"Beti erabili dugu musika aldarrikapenak egiteko"

GAIZKA 'TRONPI' IHESKIDE TALDEA

Ekainaren 12an, 19:30ean, Iheskide taldeak 'Tinko gurean' diskoaren aurkezpen kontzertua eskainiko du. Punk rockaren eta "oihuen" bidez egoerari buelta eman nahi diote

eta taldearen betiko esentzia mantentzen duen. Iheskideren berrespena bezalakoa da; salaketa berdina jarraitzen dute. Kolaborazioak ere izan ditugu, Des-kontrolako lagunak eta Ataramiñe argitaletxeko lagun

"KONTZERTUA ESERITA IKUSTEAREN NORMALTASUN EZA GURE DOINUEKIN APURTUKO DUGU"

batek bizpahiru letrekin lagun du digute.

Zer diote letrek?

Guk beti esan dugu, beti erabili izan dugu edo baliatu izan dugu musika, punk rocka, salaketak eta aldarrikapenak egiteko. Azkenean guretzako komunikatzeko eta gure iritzia eta salaketak plazaratzeko ezinbesteko tresna bat da; beti esan dugu gure mezuak zabaltzeko tresna gisa baliatzen dugula punk rock-a eta gaur egun, oraindik ere, mila arrazoi ditugu kantak egiten

jarraitzeko. Badago salaketarako zera hori. Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoagatik beti egon dira presente horrelako mezuak musikan, eta gaur egun arte gelditu dira. Orduan, tinko mantentzen dugu gure mezua.

"DISKOA AZKARRAGO ETA ZUZENAGO ATERA DA; IHESKIDEREN BERRESPENA BEZALAKOA DA"

Esaterako, osasun krisiaren atzean dagoen krisi soziala eta politikoa azaleratzen dugu, nostalgian ere erortzen gara, deserrian daudenak kontuan izan ditugu, disko guztietan bezala borroka internazionalista sartu dugu... Oraingoan Saharari buruz hitz egin dugu eta horretarako Saharako familia batekin arratsalde bat pasa genuen eta esperientzia izugarria izan zen. **Diskoa zuek ekoitzi duzue, zergatik?**

Ez dugu planteatu ere egin. Egoeratik izan dela uste dut. Pandemia aurretik diskoa grabatu genuela argi geneukan. Baina hortik aurrera zer egin? Zalantza genuen. Ez genuen diskoetxe edo zigilu batekin konprometitu nahi. Bakoitzaren egunerokotasuna eta pandemia zela eta, erabaki hori hartu genuen. Gerora, eta pandemiaren oztupoak gainditzeko, Baxerri Produkzioak-eko Ikerrekin abiatu dugu elkarlana zuzenekoak lotzeari begira, merchadising-a eta abar. Aspaldiko lagun eta gaurko bidelagun da.

Pandemiak gogor jo du kultura. Nola ikusten duzue egoera?

Egoera eskaxa da. Oso kolpatua izan da kultura. Horrela nahi izan dutelako, noski. Ikusi izan ditugu jende pilaketak beraien ekonomiari ekarpena egiten dioten guneetan (garraio publikoetan, lantegi handietan, supermerkatuetan eta abar) eta kultur ekintzak egiteko, trabak besterik ez daude. Osasun krisiaren izean! Diru publikoaren partida bat eskaini dute kulturarako; gauzak gutxi erraztuz, egia esan. Beraien buruak zuritzeko izan da, baina ez da beste ezer izan. Gure kasuan, kontzertu pare bat egin ahal izan ditugu, beste talde gutxi batzuk aukera asko dituzte, baina beste asko eta askok ez dute aukerarik izan; ez baliabiderik ez tokirik, ez jotzeko ez entseguetarako... Eta ondorio atzerazinak izan ditzakeela uste dugu. Kultura segurua da, eta ea epe laburrean buelta ematerik dugun.

Hemendik aurrera, zer? Nola ikusten duzue etorkizuna?

Espero dugu ahal den heinean kontzertuak ematen jarraitzea. Guk argi dugu, egoera zein baldintza egokienak ez diren arren, oztopo denen gainetik punk rock-az eta borrokaz gozatzen eta gozarazten jarraitu nahi dugu. Boliek aurrera jarrai dezala!



Ekicrock proiektuaren aurkezpena Lakuntzako plazan. UTZITAKOIA

Eguzki izpiak kultura bihurtuta

Ekicrock proiektua aurkeztu zuten Lakuntzan aurreko astean. Eguzki indarraz baliatuta kontzertua eskaini zuten Ibaixok, Martinek eta Rikardok osatutako Goruntz taldeak eta Jon Gurrutzagaren eta Urbil Artolaren Kateak-ek



BAZTERRETIK

JUAN KAR LOPEZ-MUGARTZA

Gure beste anai-arreba sakandarrak

GUAIXE irakurtzea gustuko dut gertuko berriak ekartzen dizkigulako. Gertutasuna gustuko dut. Ez zait gehiegi gustatzen maite ditudan senide eta lagunengandik urrun egotea, pandemiaren urte honetan egon behar izan dugun moduan, eta, horregatik, hurbiltasuna maite dut, berotasuna, besarkada estua, musua.

Nire herrian emigrazio handia egon zen 60ko hamarkadan, eta orduko *baby-boom* hartako ondorioa naiz. Jende asko etorri zen Euskal Herriko txoko honetara, Etxahun Irurik idatzi eta Benitok kantatu zuen bezala, beren "opilaren egitera", hau da, ogibide eta etorkizun hobe baten bila.

Sakana industrializatu zen, eta trenaren beharrak asetzen zituen fundizioari

beste hainbat lantegi gaineratu zitzaizkion. Honela, bada, Sakana tximiniezen bete zen, porlanez eta keaz, eta nazioarteko immigrazio gune bilakatu zen, leku askotatik etorritako jendeari esker, azentu eta begirada berriez hornitua, abizen, azal kolore eta amets berriez.

Horregatik maite dut hainbeste GUAIXE, gertuko delako, eta bere gertutasunean, aipatu "nazioartekotasun" horren ondorengoa delako, munduan gertatzen denari irekita beti, guretzat munduan gertatzen dena ere gertuko albistea baita, bertako berria, tokikoa, etxekoa.

Horregatik, urrutikoa gertuko da guretzat, eta Palestinarekin elkartasuna adierazten dugu elkarretaratze batez edo *Aida Camp*

errefuxiatu eremuko hezitzailearen hitzak entzunez. Horregatik, hangoa hemengoa da guretzat, eta Tindufeko idazle baten liburuaren aurkezpena biltzen da jendea, Sakanako artistak noizbait bildu ziren bezala *Sahara Aske Baten Aldeko Artea* izeneko ekimenean.

Horregatik, diasporako sakandar horiek pairatzen dituzten bidegabekeriek mintzen gaituzte, eta Munduko sakandar zanpatu guztiontzat justizia eta bakea eskatzen dugu. Eta osasunerako eskubidea ere bai, eta patenteak libera ditzaten, munduan diren herrikide gaixo guztiek beren txertoa izan dezaten. Zeren eta haiek ere baitira, GUAIXEren gertuko berrien orrietan, begira ditugun gure beste anai-arreba sakandarrak.

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Eguzki indarraz baliatuta dabilen kultur azpiegitura eta komunikazio zentro bat dela azaldu du Urko Ruiz Apodaka Ekicrock proiektuaren kideak. "2018. urtean hasi ginen honi forma ematen OrdiziaRock ekintzak eta Krea Energia Berriztagarria". Garai horretan eguzki indarraz baliatutako jaialdi bat egin zuten, AfterSun, eta bertan erabili zituzten gailu guztiak eguzki indararekin erabili zituzten. "Hortik hasi ginen proiektuan lantzen".

"Elektrizitatekerik ez zegoen toki batean kontzertu bat antolatzea nahi ginen". Behar batetik abiatu zen proiektua. "Gu beti ibiltzen gara gauzei hamar mila buelta ematen eta gabezia hau ikusi ginen". Jon Zabala Krea Energia Berriztagarria-eko ardura-dunarekin bildu ziren. Gero gauzak "hobetzen eta sartzen eta ateratzen" joan ziren, Ekicrock sortu arte.

Azken finean, "entxufe ibiltari" bat da. "Katxarro hori energia biltzeko puntu bat da. Generadore bat izango balitz bezala, baina eguzki indarra hartzen du". Bizikleta bat jarri zioten, eta kontzertuetarako eta kultur ekintzetarako baliatu zuten. Komunikazio sistemaren bidez momentuoro jakin daiteke zenbat energia sartzen den, zenbat erabiltzen ari den, zenbat biltzen ari den eta abar.

Kultur azpiegitura

DJ saioak, kontzertuak, proiektzioak, bertso saioak, antzerkiak, hitzaldiak... Ekicrock-ek kultur arloko edozein emanaldi egiteko aukera eskaintzen du. "Soinu ekipo finko bat du, soinu mahai digitala non gitarraren eta baxuaren simulazioa egin daitekeen, proiektorea, mikrofoia eta abar. OrdiziaRock-ek aspaldiko kontu batekin jarraituz pertsona gorrendako bukle magnetikoa ere badauka". Gainera, zentroa ez ezik, bozgorailu gehiago entxufatzeko aukera dago ere.

Ekicrock aparatua eguzki indarra hartzen du eta biltzen du. Pilatutako energia horrekin hamalau orduko DJ saio bat egin daitekeela esan du Ruizek. "Kontsumitzen den energiaren arabera da. DJ saio bat sipleena da eta esango nuke ia-ia ez dela inoiz bukatuko". Emanaldiak gauez egiten badira, energia bateriatik hartzen du eta eguzkia ateratzen denean berriz kargatuko da. Geroz

eta elementu gehiago konektatu, bateria azkarrago bukatuko da. Baina Ekicrock-ek autonomia handia du: "Añorgan jaialdi bat egin genuen. Goizean soinu frogak egiten hasi ginen eta 20:30ean bateriaren %10 baina ez zen gastatu".

Eguzki energia

Aurreko ostiralean Ekicrock-eko arduradunak Lakuntzan izan ziren. Goizean saio didaktikoa eskaini zuten herri eskolan eta arratsaldean eguzki indararen bidezko kontzertua izan zen plazan. Saio didaktikoak egitea-rena "zeharka" sortu zitzaizela azaldu du Ruizek. Saio hauetan eguzki indarra erabiltzearen abantailak azaltzen dituzte: "Energiak etxera iristeko pasatzen duen prozesua, kutsadura zer den eta eguzki energiarekin nola murriztu daitekeen". Azken finean, Ekicrock zergatik sortu duten erakutsi nahi dute: "Zuzenean erakutsi dezakegu eguzki indararen ahalmena".

Oraindik "esperimentatzen" ari direla esan du Ruizek, eta haurren adinaren arabera interes gehiago edo gutxiago erakusten dutela azaldu du. "Batuetan galdera asko egoten dira, beste batuetan gutxi; haur batzuk asko dakite, uste baino gehiago". Harridura ere erakusten dute, momentuan energia sortzen dela ikusten dutelako.

Egun berean, arratsaldean, Ekicrock-en bidezko kontzertua egin zuten Lakuntzako plazan Goruntz Ibaixok, Martin eta Rikardo Lakuntzako musikariekin osatutako taldeak eta Jon Gurrutzagaren eta Urbil Artolaren Kateak taldeak. Lehenengo emanaldian gitarra, baxua eta bateria konektatu zuten, eta bigarrenan bi gitarra akustikoa, nahiz eta Urbilek gitarra mota desberdinak erabili zituen. "Jendea gustura egon zen eta potentzia maila nahikoa eta soberan egon zen".

Uda izan ohi da kontzertuak eta emanaldiak eskaintzeko garaia aproposena, baina "egoera orain nahiko xelebrea da". Ekicrock proiektuaren kideen helburua ez da "kristoren jaialdiak" egitea. Gustuagatik egiten dutela aitortu du Ruizek, "eta asperitzen garenean utziko dugu". Bi hamarkada inguru daramatzate kontzertuak eta mota guztietako ekitaldiak antolatzen, eta herri-aren batek behar badu, Ekicrock tresna ez ezik, emanaldi guztia produzitu dezakete.

Etxarri, ipuin bateko herria

Udalbiltza 'Geuretik Sortuak' kultur proiektua garatzen ari da. Egitasmoaren bidez parte hartzaileendako egonaldi artistikoak egin dituzte. Yolanda Arrieta idazlea Etxarri Aranatzan astebetean egon da ipuin proiektu bat idazteko

Eneida C. M. / Erkuden R. B. ETXARRI A.

Arteak eta kulturak gizarte batean funtsezko bi funtzio betetzen dituela dio Udalbiltzak: hizkuntza baten imajinarioa garatzea eta herri baten historiaren lekuko izatea. Euskal Herrian gaur egun arteak eta kulturak duen ahulezia nabaria dela gaineratzen du instituzioak. Ahuleziari aurre egiteko, *Geuretik Sortuak* proiektua martxan jarri dute Euskal Herriko hogeita bat artistek zenbait herritan egonaldi artistikoak egin ditzaten. Idatzizko, ikus-entzunezko edo antzerki proiektuak garatuko dituzte Udalbiltzaren beka jasotzen duten artistek. Artistek gehienez hiru aste pasako dituzte egokitzen zaien herrian. Yolanda Arrieta idazle bizkaitarrak proiektuan parte hartu du eta aste honetan Etxarri Aranatzko kaleetan eta basoetan, eta etxarriarrek hitz egiten egon da.

"Denok gara gure garaiko kume. Artista hitz handia da, baina sormen lanak egiten duena da egunean bizi dugun kumetasun horretatik ingurua, garaia, gertaerak eta abar nola bizi ditugun islatzea. Betiere pertsonaren galbaea zentzumenak, irudimena eta oroimena dira". Udalbiltzaren proiektuan "euskaratik" sortutako egitasmoa dela esan du Arrietak, "euskara da biltzen gaituena". Euskararen imajinarioaren bidez garaia eta tokia erakutsi behar dute. "Hor barruan dago oroimena ere". Baita sortzailearen bizipenak eta herri bakoitzeko memoria "txikiak" eta "sozial eta kolektiboak". Sortzaileek osagai guzti horiek hartuko dituzte eta "pastelxo edo magdalenatxo" bat egin behar dute; "ahalik eta ederrena". Hala ere, edertasuna ez dela bakarrik polita izatea esan du. Proiektuan



Yolanda Arrieta idazleak egonaldia egin du Etxarri Aranatzan.

parte hartu dutenen tresna, beraz, euskara da, Arrieta kasuan, idatzia. "Baina imajinario horretan irudimena ere badago eta barne irudiak daude ere".

Astebete Etxarri Aranatzan pasako du. Bihar, larunbata, iza-

"HARIZTIAN SARTZEA INFINITURA JOATEA BEZALA DA, MUNDUAREN HASIERARA"

nen da bere azken eguna herrian, eta bisita idazketa tailer batekin itxiko du. "Jendea ezagutzeko modu bat da". Udalean proposamena egin zuen eta onartu zuten. Zortzi bat pertsonak eman dute izena. Herria ezagutzeko aukera izan du, eta jendea "asko" ezagutzen ari da: eskolan, ikastolan, nerabeekin egon da, basozainekin, gazteekin... "Ni ez naiz kazetaria, eta ez da dena jasotzea izango. Fikzioa egin behar dut".

Etxarri Aranatz ez zuen aurretik ezagutzen, idazleak gogoratzen duenez gazte zenean errepidetik pasatu izan zen Estellesarekin, Lizarra bidean. Castillo Suarezen laguna da, "kideak ofizioz ere", eta altsasuarraren bidez hainbat tailer eskaini ditu Sakanan. "Baina Etxarri Aranatz ez dut uste. Inguruan, bai. Baina gauza bat da bueltan egotea eta beste gauza bat da herri batean murgiltzea".

"Edozein tokirako" baliagarria zen proiektu bat aurkeztu zuen Arrietak. "Web orrian *niatik guara* jarri nuen. Egin nuenean definitzen nauen izen bat behar nuela esan zidaten, eta hori aterazen". *Niatik* abiatuta, lekutik ere elikatzen da idazlea: "Ez naiz *niarekin* gelditzen. Denok dugun ni hori, neurri batean bakarra dena eta beste alde batetik batzen gaituena". *Niatik guara* pasatzen da: "Lekua gu izango litzateke, espazioa, kolektibitatea. Ni nik hor zer ikusten dudana nire pertzepzioetik izango da". Joko bat da. "Nia ez da bakarrik Yolanda Arrieta. Nondik natorren eta zerekin lotuta nagoen da; oroimenari, memoria historikoari, memoria sozialari, gertaerei, hizkuntzari..."

Hiru galdera

Proiektua garatzeko Arrietak pertsonara hurbildu nahi du, "baina pertsona subjektu kolektiboa eta soziala da", eta horretarako hiru galdera planteatzen ditu: "Zein izan den momenturik edo gertaerarik garrantzitsuena, zer eman dien eta zer kendu, eta zerk merezi du irautea". Galdera horren inguruan aspaldi pentsatzen duela esan du idazleak. "Azken ipuinek ere azpian galdera hori daukate". Jendearengana hurbiltzen da, eta jendeak hitz egiten du. "Hortik tiratzen dut eta balio ez dutenak bazterrerara eramaten dut". Etxarri Aranatzan aste honetan egin duena "abiapuntua" izan da. "Jasotzen ari naizen horrekin antolatzen ari naiz. Ahots desberdinak dau-

de, eta hori interesgarria iruditzen zait".

Garaiak ere garrantzitsuak dira: "Iragana, gaur eguna eta gerora zer egongo da". Kanpoan eta barruan pentsamenduak ere errepikatzen direla azaldu du idazleak. "Lur komunaren azpian dagoen bizimodua gaur egun kanpotik etortzen diren ohiturekin talka egiten dutena...". Sakandarrak batzen dituen elementuetariko bat badagoela esan du Arrietak: basoak. "Nik uste basoak ideologia guztiak batzen dituela". Hariztian sartzea infinitura joatea bezala dela esan du idazleak, "Munduaren hasierara". Jaso duenez, euskara ere dago, "baina erdara ere badago", azaldu du. "Kolore askotako gauzak daude".

Azken urteetan ibarrean turismoa sustatzeko egin diren ahalemetan horretan sinistea ez omen den falta galdetuta, "sinistu baino azpian beldurra dagoela uste dut". Kalte egitearen beldurra, kutsatuko dutenaren beldur... "Pertsona batekin hitz egin nuen eta esaten zuen diru iturri izan daitekeela, baina neurtuta izan behar dela". Aisialdiak heziketarekin eta osasunarekin zerikusia duela gaineratu du, beraz, "egin-garria" da turismo proiektu osasuntsu bat Sakanan. "Ongi neurtuta eta antolatuta". Ibarrean arimatik sendatzeko aukera dagoela esan du.

Beharren arabera

Etxarri Aranatzan beharren arabera eraikitzen joan dela nabaritzen dela esan du Arrietak. Etxe asko "ederrak" direla esan du, "baina bakoitza bere amarena eta aitarena da, eta bakoitzaren estilokoa". Hortaz, ondoan dagoen etxe batek bestearekin ez duela zerikusirik esan du. "Bakoitza den bezalakoa da". Hala ere, "elkarrekin harmonian bizi zarete". Basoaren bizitza ere badela gaineratu du. "Premien arabera egindako herri bat dela esan zidaten. Nik herria estetiko koki batuko nuke".

Arrieta biltzen ari den informazio guzti hau gehienez 25 orriko ipuin bat bihurtuko du irailaren erdialderako. Aurkezpen bat baino gehiago egitea aurreikusiko du Udalbiltzak, proiektuan parte hartu duten idazleak herri desberdinetara joan direla uste du Arrietak. "Polita iruditu zitzaidan jendea ezagutzeko eta herria ezagutzeko".

"Odol emateak ez du esfortzurik eskatzen"

Patricia Fernandez Ganuza olaztiarrak hogeit hamar urte baino gehiago daramatza odola ematen. Gurasoen bidea jarraitu zuen, odolaren beharra zela eta. Adonako Olaztiko delegatua da

Erkuden Ruiz Barroso OLAZTI

1 Zergatik hasi zinen odola ematen?

Nire gurasoak betidanik izan dira odol emaleak eta odola behar denez, animatu nintzen. Nik oso gustura ematen dut, eta beti ongi egon naiz; arazorik gabe. 1999. urtean hasi nintzen, adin nagusitasunera iritsi eta gutxira. Lehenengo aldia ongi joan zen. Orratz handi bat da, eta orratzek beti beldurra eman didate. Baina urratsa ematea erabaki nuen. Gainera, nire odol motak edonori balio dio; unibertsa da eta jende askori lagun dezake.

2 Odol mota hori preziatuena izanen da, ezta?

Garaiaren arabera izan ohi da. Gehienek 0+ edo 0- dugu, orduan batzuetan besteetatik ere eskatzen dute, A edo B motakoak, ez direlako hain ohikoak.

3 Zer baldintza bete behar dira?

Gutxi. Adin nagusikoa izatea, osasun ona izatea, hau da, burdina maila ona izatea eta defentsa eta tentsio jaitsierak ez izatea. Nik behin bakarrik ezin izan nuen eman burdina baxua nuelako. Bestela, arazorik gabe.

4 Odola eman aurretik probarik egiten dituzte?

Bai. Lehenengo aldian datu personalak hartzen dituzte, eta lau tubo ateratzen dituzte aztertzeraz eramateko. Baiezkoa bada, hurrengoan aurrera.

5 Tatuajeak edo piercing-ak baldin badituzu, eman dezakezu?

Egin ondoren tarte bat itxoin behar duzu: lau hilabete. Baita gastroskopia bezalako probak edo ebakuntzak egiten badizkizute ere.

6 Nolako da prozesua? Zaila da?

Hona autobusa etortzen da, joaten zara, eta prozesu oso az-



Patricia Fernandez Ganuza, Adona elkarteko Olaztiko delegatua.

karra da. 450 ml ateratzen dituzte. Hamar edo hamabost minutu irauten du. Gero tartetxo bat gelditu behar zara bertan tiritarekin presioa egiten. Odola ateratzen ez denean, paper bat ematen dizute pintxo eta pote bat hartu ahal izateko. Ez da derri gorrezkoa, baina bai gomendagarria. Azukredunzert bait hartzea gomendatzen dute, esaterako. Normalean jende guztia joaten da hartzera, behar duzulako. Gainera, odola eman ondoren ezin dira esfortzu handiak egin. Inpresio pixka bat ematen du, gehien bat lehenengo aldian, orratz handiak direlako. Baina ohitzen zara. Inpresioatik jendea zorabiatu izan da, baina hala ere, ematen jarraitzen du. Ez da ezer.

7 Zenbatero ematen daiteke?

Hona urtean hiru edo lau aldiz etortzen dira. Gizonezkoek

emakumezkoek baino aldi bat gehiago eman dezakete, hilerokoa dela eta. Kanpainaren arabera jende gehiago edo gutxiago etortzen da. Lau hilabetero eman daiteke, gutxi gorabehera. Bestela, Iruñean ere eman daiteke.

8 Odolaren falta dago, ezta?

Odola behar da. Elkartetik gazteak ematea sustatu nahi dute. Bataz besteko adina 50 urtekoa da. Jendea jubilatzen ari da, eta berritu behar da. Baina kostatzen da. Hori bai, Olaztira etortzen diren bakoitzean emaile berri bat dago, gaztea. Nik animatzera gomendatzen diet. Edozeinek behar izan dezake edozein momentutan. Ez du esfortzu handirik eskatzen.

9 Odol hori zertarako erabiltzen dute?

Zehazki ez dakit. Poltsak izozten dituzte behar dutenerako. Ate-

ratzen dutenetik plaketak eta odola bereizten dituzte. Transfusioak egiten dira, istripuren bat dagoenean eta zauritutakoak odola galtzen duenean, ebakuntzak egiten direnean...

10 Elkarteko kidea zara ere. Zerk motibatzen zaitu?

Elkarteko delegatua naiz duela hamar urte inguru. Orain denda bat dut eta ezin dut hainbeste denbora eskaini. Larunbatetan bilerak izan ohi dira eta urtean behin Elgorriaga balnearioan ikastaro bat egiten dute. Baina sei urte daramatzat joan gabe dendarekin ezinezkoa delako. Esan nien erreleboa egiteko, baina dirudienez oso zaila da. Gauzaren bat egiteko esaten ditadenean egiten dut. Zerbait

altruista da. Edozein momentutan zuk behar izan dezakezu. Ni medula, organo eta ehunen emaile ere banaiz. Gorputza zientziara ematea gelditzen zait bakarrik. Pixkanaka guztia egin dut. Odola ematen duten askok, ez guztiak, pixkanaka galdetuz joaten dira beste gauzen emaile izateko ere.

11 Pandemiarekin zein da egoera?

Jendea odola ematera animatzen ari dela esan zidaten Iruñetik. Egia da pixkatxo bat gelditu zela, agian jendeak beldurra zuelako. Baina ez dago arriskurik dena egokitu dutelako. Orain aurretik hitzordua eskatu behar da, eta autobusean gehienez bi pertsona sartzen dira.

